


ttüpi-ttapa

1995eko ekainak 29 • 161. zenbakia

Erreportaia

HAIZEA:

**Osasun Zerbitzu
gehiago zonarako**



**UDAGIROAN
MURGILTZEKO PREST**

JAI ZORIO OMTSUAK DENARI
FELICES FIESTAS A TODOS

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA



BETI ZUEKIN
ZUEN KUTXA

GAN

CAJA DE AHORROS DE NAVARRA
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA

DATUAK.....

❖ Jon Abril, 20 urteko gazte beratarra da.

❖ Kazetaritza ikasten ari da bigarren mailan Leioako fakultatean.

❖ Herriko bertze bortz lagunekin batera, 'Kaxerna' Aisialdi Taldea osatu zuten joan den urteko uztailean.

❖ Begirale titulua ateri ondotik, Beran bertan praktikatzeko leku egokia izanen zutela pentsatu zuten.

❖ Uztailera begira, zenbait ekintza antolatu dituzte Beran; haurrentako zenbait ekitaldi eta gazte eta helduendako txalaparta ikastaroa.

Jon ABRIL:

«Haurrak inolako bereizketarik gabe hezi nahi ditugu udalekuetan»

ZER DA AISIALDIRAKO TALDE BAT?

Eskolatik kanpo haurrari ekintza batzuk eskeintzea, aldi berean helburu hezigarri batzuekin.

HORRELAKO TALDE BATEN BEHARRA SUMATZEN ZEN HEMEN?


Beharra bazegoen, haurrek behar zuten eta guk ere praktikak egin behar genituen. Horretaz aparte, haurrak bildu nahi genituen eskola orduetatik kanpo euskaraz aritu ahal izateko. Gure helburu nagusietako bat hori da, euskara bultzatzea. Haurrak berdintasun batean ibiltzea nahi dugu, adin, sexu edo erlijio bereizketarik gabe. Lehen elizaren inguruan egiten baitziren kanpamenduak eta honelako gauzak eta hori gainditu nahi dugu.

GISAKO TALDERIK BADA INGURUAN?

Elizondon bada bat eta orain Lesakan, gure arrimoan bertze bat sortu dute.

ZEIN DIRA URTEAN ZEHAR EGITEN DITUZUEN EKITALDI NAGUSIAK?

Batez ere udan izaten ditugu. Leitzan lau egunez egon ginen kanpaldian eta Aste Santuan ere ekintza batzuk



egin genituen. Begirale guztiak estudiatzen gaudela da arazo nagusia, eta horrek, urtean barrena aunitz mugatzen gaitu. Uztailean, hiru eta hamalau urte bitarteko haurrentzat ekitaldi batzuk antolatu ditugu, eta gazte eta helduentzat txalaparta ikastaroa.

ETA ZER EGITEN DUZUE HAURREKIN?

Asteko egunak barnatzen ditugu eta egun batez mendira joaten gara, naturarekin harremana izateko, bertze batean pistzinara, eskulanak egin sormena lantzeko, jokuk...barietatea bilatzen dugu. Haurrak egunero gauza bera egiteaz aspertzea ez dugu nahi. Talde bakoitzarekin hilabete batez egoten gara, astelehenetik ortzirralera, goizeko 10etatik 1etara.

ZEIN ADINEKOAK IZATEN DIRA?

Aurten, 3-14 urte arteko hiru talde izanen ditugu, guztira 80-100 haurrekin lan egingen dugu. Iaz, 10 urte artekoak genituen.

ESTIMATZEN DUTE GURASOEK HAURREKIN EGITEN DUZUEN LANA EDO...?

Auniztan, behar bada, haurretaz libratzeko modu bat dela iduritzen zait, baina batzuk ohartuko dira. Esperantza hori dugu behintzat.

► *“Hurrei ongi pasatzea eta lagun berriak egitea eskaintzen diogu eta gurasoei haurraren heziketan garrantzitsua den eta guttiegi lantzen den pausu bat ematea”*



HAIZEA: OSASUN ZERBITZU GEHIAGO ZONARAKO

HAIZEA izenarekin bataiatu dute Elizondoko Osasun Zentruan apirilaren 10ean martxan jarri den zerbitzu berria. Berez Emakumeendako Harrera Zentrua bada ere, aldiberean Familia Plangintza eta Sexu Heziketarako Zentrua ere bada, eta horixe da arrazoia, COFES deitu beharrean Haizea izenez izendatzeko Osasun Zerbitzu berri hau. Baztan, Bertizarana, Bortzirriak, Malerreka, Urdazubi eta Zugarramurdikoak dira zerbitzu honetaz baliatzen ahal direnak, Seguritate Sozialean edo Diputazioko Mutuaren batean sartuak egon ezker.

elizondoko Osasun Zentroko lehenbiziko solairuan daude Haizeako osagileak. Apirilaren 10ean hasi ziren kontsultarako ordua hartzen eta jendeak eskatzen duen informazioa ematen. Leitzaldekoiei dagokionez, badirudi momentuz Iruñera joaten segitu beharko dutela orainarte bezala. Momentuz, emakumeak dira gehien deitu eta hurbildu zaizkienak. Zuzenki beraiei bakarrik dagozkien kontuak

GAZTELERAZ COFES BEZALA EZAGUTZEN DEN ZENTRU BAT NAFARROAKO MENDIALDEAN JARTZEKO SAIAKERAK EMAN DU EMAITZA. APIRILAREN 10EAN HASI ZEN LANEAN ARGAZKIAN AGERI ZEN PROFESIONAL TALDEA. EZKERRETIK ESQUINERA ISABEL ALEMAN (ERIZAINA), ROSA AIESTARAN (ADMINISTRAIRA ETA TELEFONOA), ITA SAGASETA (HEZITZAILE ETA INFORMATZAILEA) ETA JESUS ZABALETA (GINEKOLOGOA).

TESTUA :
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIAK :
MENA

ez izanta ere, haurdunaldia edo antisorgailuen kontuak direla eta, generalean emakumeak dira joaten direnak eta gizonezkorik gutitan ikusten da kontsultan. «Horrek ez luke horrela izan behar bainan horrela da egoera. Lan haundia dago egiteko». Dena den, emakume batek deitzen duenean, nahiz eta errebisio ginekologiko baterako izan, elkarrizketa izaten dute berekin, eta hor, fitxa batean, bere 'historiala' izanen denaren oinarria irekitzen da. «Nahiz eta errebisioa egiteko etorri, elkarriz-

ketan beti agertzen dira ber-
tze gaiak —dio Ita Sagase-
tak— antisorgailuak direla,
edo harreman sexualesi bur-
uzko gaiak... *Generalean,
dena den, errebisio bat nahi
izaten dute*». Hala ere, kon-
tutan hartu behar da zentru
honetan adin fertilean eta adin
ez-fertilean dauden emaku-
meak ikusten dituztela. Izan
ere, adin fertilean dauden
emakume ugari ikusi dituz-
ten bezala, menopausiarekin
edo horren inguruan daude-
nak ere ugari ikusi dituzte.

IRUÑERA

JOAN BEHARRIK EZ!

Ixabel Alemanek aipatzen
digenez, Zerbitzu honetara
hurbildu diren guztiak bat eto-
rri dira hurbiltasunak ekar-
tzen duen mesedea azpima-
rratzerakoan. «*Segur naiz se-
kulan errebisiorik egin ez
duen emakumeak edo aspal-
dian egin ez dutenak, orain
eskurago dutenez aisa gehia-
go etorriko direla*».

PREBENTZIO ETA INFORMAZIOA

Garrantzia handia ema-
ten diote prebentzio eta in-
formazio lana egiteari. «*Ho-
lako tokietara problemak sor-
tu ondotik etortzen gara, eta
azpimarratu behar da araz-
oak sortu baino lehen etor-
tzen ahal dela guregana*».

ANTISORGAILUEI BURUZKO INFORMAZIOA

ESKAITZEN DIREN ZERBITZUAK ETA ORDUTEGIAK

OSASUN ZERBITZUAK



HAIZEA

EMAKUMEENDAKO HARRERA ZENTRUA
ETA FAMILIA PLANGINTZA ETA HEZIKETA
SEXUALERAKO ZENTRUA

Osasun Zentrua • Joakin Iriarte, 4 • ELIZONDO



58 06 21

Ordua eskatzeko eta edozein
argibiderako deitu telefono honetara

HARRERA-INFORMAZIO ZERBITZUA

Informazio kontsultarako eta ginekologi kontsultarako eguna eta ordua
ematea.

SEXU ARLOKO HEZIKETA ETA INFORMAZIO ZERBITZUA

Informazio eta heziketarako ekintzak honako arlo hauetan: sexualitatea,
antisorgailuak, sexu bidezko gaixotasunak, HIESa, emankortasun eza,
menopausia...

ATS, ERIZAINA: ERIZAINZAKO KONTSULTA

Erditze momenturako eta amatasuna prestatzeko ikastaroak, diafragmaren
erabilerari buruzkoak...

GINEKOLOGOIA

Familia plangintzaren atentzioa eta jarraipena. Errebisio ginekologikoak.
Bular eta ginekologi-minbizien prebentzio eta diagnostika. Sexu bidezko
gaixotasunen azterketa eta tratamendua. HIESaren jarraipena.
Haurdunaldiaren kontrola eta jarraipena. Menopausia garaian dauden
emakumeentzako atentzioa.

ORDUTEGIAK

HARRERA-INFORMAZIO ZERBITZUA, SEXU ARLOKO HEZIKETA ETA INFORMAZIO ZERBITZUA ETA ERIZAINA

Egunero goizeko 9etatik
eguerdiko 2etara

GINEKOLOGOIA

Astelehen eta ortzegunero, eta
hilabetearen 1. eta 3. asteazketan
goizeko 9etatik eguerdiko 2etara.

GAZTE PROGRAMA

22 urte baino gutiago duten
pertsonek, asteazken
arratsaldetan 4etatik 7,30etara
(Ekaina, Uztaila eta Abuztuan izan
ezik).

Batez ere gazteei begira,
informazio eta heziketa pro-
grama martxan jartzeko pres-
tatzen hasiak dira. Programa
hau 22 urte baino guttiago

duen gazteentzat pentsatua
dago, eta momentu hau ikas-
turtearen akabera eta udaro-
arekin suertatzeagatik ego-
kiena ez delakoan, ikasturte

berriaren hasiera bitarte u-
tziko dute horretan serio has-
teko. Zentzu horretan, be-
raien asmoa ikasle-irakasle-
ekin lan egitea da. ■



Ita SAGASETA

HAIZEA lantaldeko
Hezitzaile eta Informatzailea

«Guregana etortzeko ez da arazo bat izatera esperatu behar»

■ Zein da Zentru honen berezitasuna?

□ Berez hau Emakumeen-
dako harrera zentru bat da,
eta adin fertilean ez dauden
emakumeak ere ikusten dira.
COFES arruntetan adin-
fertilean dauden emakume-
ak bakarrik ikusten dira, bai-
nan hemen adin ez fertilean
daudenak ere bai.

■ Eta gizonezkoak...?

□ Bai, gizonezkoak CO-
FESen baitan etortzen ahal
dira, Familia Plangintza eta
Sexu Heziketarako Zentru

bezala. Zentru honek bi gau-
za hoiek biltzen ditu; Ema-
kumeendako Harrera Zen-
trua da eta baita Familia
Plangintza eta Sexu Hezi-
ketarako Zentrua ere.
Horregatik bilatu diogu ber-
tze izen bat: Haizea.

■ Zerbitzua etxetik hur- bilago eskeintzeak nolako erreakzioa sortu du?

□ Zerbitzua eskura izateak
izugarri gauza ona da. Etorri
diren emakume eta bikote
guziak komentatzen dute 'Ze
ongi hementxe bertan iza-

tea!'. Ordua eskatu eta or-
dua eman bitarte zegoen tar-
tea ere murriztu egin da, eta
hori ere izugarri eskertzen
da. Dena den, Familia Plan-
gintza toki hauetara etortzen
diren pertsonak, normalean
arazoren bat dutenean etor-
tzen dira. Ez dira aurretik
etortzen informazioaren bat
eskatzera edo... Eta horre-
ri ere, garrantzia eman be-
har zaio. Honat jendea edo-
zein momentutan etortzen
ahal da. Arras inportantea
da informazio lana.

EGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.000 ALE

REGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-

en. **Publizitatea:** Miren Kar-

le Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor

Arozena, Joxemanuel Irigoien.

Erredakzio taldea: Pello Ape-

txea, Juainas Paul, Kristina

an, Bittori Telletxea.

Erriemaileak: Joseba Azpiroz,

eban Arozena, Juana Mari

zazar, Ainhoa Mutuberria, Iban

si, Txema Aldabe, Pello

regia, Txema Urroz, Patxi

andorena, Daniel Martirena,

bel Maia, Josune Etxebeste,

blo Mendiburu, Joseba

rabide, Alizia Olaizola, Margari

enike, Koro Irazoki, Mixel

rendiain, Jacqueline, Elixabet

ria, Garbiñe Maiz, Oskar

operena, Alberto Sansiñena,

lo Apezetxea, Aitor Arozena,

stina Boan. **Kolaboratzaileak:**

NE Nafarroa, Patxi Laso, Mikel

zunartea, Joxe Javier Etxe-

ria, Arantxa Zabala...

Erriategia: Gertu (Oñati).

Tipi-ttapa ez du bere gain har-

ren derrigorrez, aldizkarian adie-

ritako erranen eta eritzien eran-

kizunik.

Kunde Laguntzaileak: Bera,

Goizueta, Areso, Baztan,

Uztarri, Zugarramurdi eta

Urdulak, Bortzirietako

Udalak, Mankomunitatea,

Udalerrekako Zerbitzu Mankomu-

nitatea...



Aldizkari honek Nafarroako
gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Gaur egungo haurrek gehiegizko babesak dute?

Gure babesak haurra orientatzeko balio behar du



M^{re} Jesus BARAIBAR
Aseguro salt. Leizua

Gaur egun haurrak lehen baino gehiago babes-ten ditugu. Hori, seme-alaba gutxiago izateak ekarri duen zerbait dela uste dut.

Lehen, haur asko izatea zen gauzarik normalena, eta horrek, ez zien denbora gehiegi-rik uzten gurasoei haurrak babesteko. Senide zaharrenak, senide txikiak zaindu behar izaten zituen.

Babesa ematea ongi dagoela uste dut, eta gehiegizkoa den edo ez, kasu bakoitzean, banan bana ikusi beharko litzateke. Babesak ez du inola ere gurasoen egoismo positiboan erori behar, eta arrisku hori dagoela uste dut. Haurrak ez ditugu zerbait gurea bezala ikusi behar, eta gure kapritxoak edota guk egin ez genituen gauzak beraiei eginarazi guri ilusioa egiten digulako.

Haurrari bere nortasuna izaten utzi behar diogu, eta hori askotan ez da erraxa, erabat gure menpe edukitzen baititugu. Gure babesak haurra orientatzeko izan behar du izan, eta inola ere ez guk nahi dugun bezalako seme edo alaba izateko.

Haurren libertatearekin koherente behar dugu izan



Mattane IAKAR
Irakaslea. Iruen

Zer da babestea? Nire ustez haurrak bere osotasunean babestu beharrean, gurasook geure beldurak babesten ditugu. Esate baterako, demagun karreterak bildurtzen gaituela, eta karretera nola gurutzatu erakutsi beharrean gure seme-alabei kanpora ateratzea galerazten diegula eta etxean geldiarazi diegibista, bideoa edo gaur erositako bideo-jokoekin jostetan. Gisa horretako erantzunak ematen ditugu maiz. Geure burua lasaitzeko gauza materialak ematen dizkiegu, konturatu gabe haurrak kontsumista bihurtzen ari ditugula, kriterio gabeko pertsonak. Egiatzko babesa, kasu honetan, telebistaren aitzinean haur kritikoak izaten erakustea izanen zen edo beraiek eskatzen dituzten gauza guztiak ezin direla erosi uler araztea. Benetako babesa gurasoak haurrekin denbora gehiago pasatzea izanen litzateke, beraien interes, gustu eta kezka zeintzuk diren jakiteko, eta horrela, euren iza-kerara osatzen joatea, baloreak eta bizitzarako armak emanez aldireraren.

Inportantea da haurrei ardurak eman eta betearaztea



Azuzena CABEZUDO
Irakaslea. Lesaka

Baietz erranen luke nornahik eta gurasoen akatsa dela gaineratzen da. Haurrek familian duten babesa axalekoa izanik ez da egokia gizarteratzerakoan. Haurrei eguneroko gorabehera aurre egiteko autonomi eza, euren buruarangari konfidantza falta eta frustrazio maila baxua nabaritzen zaie. Guraso diktadoreak izateak guraso permisiboak izatera pasatu dela didudi. Aldaketa honen arrazoiak aztertzerakoan familietan ume gutxi eta heldu aunitz daudela, gurasoek seme-alabei eskeintzen ahal dieten denbora urria konpentsatzeko dena baimentzen dietela eta kontsumo gizarteraren eredu segitzen ari direla ohartuko gara. Halere, ez dugu dena galdutzat eman behar: umearen papera familian behar bezala definituz; guraso eta seme-alaben arteko desadostasunei eztabaidatuz bide emanez, ez batzuren ez bertzeren diktaduran erori gabe; helduok erizpide beretsuak erabiliz eta haurrei ardurak emanez eta betearaziz.



BAZTAN

ALTZARIAK

zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L. Felipe, Napoleon.
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

BOTA BERTSOA



Gaur egungo hurrek gehiegizko babesa dute?

Bittor ELIZAGOIEN
Neurria: Hamarreko haundia

Umeak gora, umeak behera beti umeekin kezketan bertze gauzarik ez da entzuten guraso askon hitzetan baina halere ni sinesten dut lehengo ohitura zaharretan mimoak onak izan daitezke betire neurri batetan mimo gehiegi izaten baita azkenik haurren kaltetan.

Umeenganako ardurarikan nolanahi ezin da utzi bainan ardura gehiegik ez du behar hainbeste garrantzi beraiek ere kapaz direla inoiz ezin dugu ahantzi horregatik bizia zer den behar zaie erakutsi beren buruen jabe izateko beurek bihar edo etzi.

IRAKURLEAK MINTZO

Gezurtiak beti gezur!

Egunotan hedabideek egia-rik urrun dauden berriak zabaldu dituzte. Gezur hauen iturburua eta arduradun nagusia 'Diario de Noticias'ek eta 'Diario de Navarra'k Baztanen duten ordezkaria, Lander Santamaria jauna da. Alde batetik, ekainaren 11n eta 12an, aste honetako igande eta astelehenean, UPN, AB eta HB Baztango alkatetza akordio baten bidez EAri kentzeko asmoz elkartu gine-la jakinarazten zen, bertze gezurren artean. Bertze aldetik, ekainaren 15ean, ortzeguna, prentsan Herri Batasunak batzarrean hartutako erabakiaren botazio kopuru faltsuak argitaratzen dira. Informatzaile hau ezker abertzalea eta HBren aurka aritzeagatik aspaldidantik ezaguna dugu, gezurra eta nahaskeria bere tresna nagusi eginez. Bertzalde, erran behar dugu sasikazetari hau EAko militantea izanik garbi gelditzen dela nor dagoen notizia hauen gibeletik eta zer bilatzen duten jokabide hauekin. Honela, alkatetza lortzea talde honendako helburu ukiezina delarik, iritzi publikoa nahasi eta HB pre-

sionatu nahi izan dute beren nahiak asetzeko. Modu berean gure batzarraren botazio kopuru okerrak kanporatuz bi ondorio bilatu dituzte; hau da, gure benetako partehartze kopurua txikitu eta batzarrak hartutako erabaki garbiak beren nahietara moldatu.

Orain egia, zerorrek konpara!

Ekainaren 6rako, ABk (Juanito Meoki) bilera batera deitu gintuen, UPNrekin gauza bera egin zuelarik. Modu berean, EAk maiatzaren 8an, ortzeguna, elkartzea proposatu zigun. Guk, nola ez, batzarraren baimenarekin bi bileretara joatea erabaki genuen. HBk beti jakin du elkarrizketarako prest egoten Baztanen eta bertze edozein lekutan egiten zaizkion proposamenak entzunez eta kontrastatuz, azken erabakiak batzarraren esku gelditzen direlarik. Jarrera hau barneratua dugu kasu honetan Baztango arazoei aurre egiteko, hala nola Euskal Herria egunez egun osatzeko. Garbi gelditu dadila, gu ez ginela deus negoziatzerantz joan, baizik eta egiten zizkiguten proposamenak entzun eta biltzera. Proposamenak batzarran aurkeztu ondoren, ekaina-

ren 13an bi proposamenak alde batera uztea erabaki zen. Gure proposamena aintzina ateratzeko gure buruari botoa ematea eta oposizio eraginkorra burutzea arras beharrezkoa ikusi dugularik. Egia kaleratzea bilatu baliiz, jendeak gure berri izanen zuen idazki honen beharrik gabe! Bakoi-tzak bere lana! Beraz, hurrengorako norbaitek jakin du...

BAZTANGO HERRI BATASUNA



Gora San Ferminak

Egun alaitsuak dira bainan pixka bat pentsatuz, denak ez gara berdin egonen, lñaki eta Patrizio oso urruti eta giltzapean daude, oraindik. (...) Egun hauetan ere, go-goan eduki ditzagun lesakar errepresaliatu guziak. Baraiek gutaz oroituko bait dira. San Fermin egunaren bezperan eta gaueko 9,30etan enkartelada Lesakako Plaza Zaharrean. Astia hartu eta ZATOZ. Zergatik ahaztu beraietaz egun hauetan?

BORTZIRIETAKO SENIDEAK



EZKALO

Jose Antonio Elizondo • API 129

INFORMAZIOA:

© 451518 Doneztebe © 23 48 30 Iruñea
Tfno. Mugikorra 908 - 77 76 96

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero



DONEZTEBEN ETXEBIZITZAK SALGAI

Bear-zana Pilotalekuaren ondoan:
3 logela • egongela • 2 bainu (hidromasai bainera) • sukaldea • trasteroa
11.250.000 Pezetatik hasita. + IVA
Hasierako sarrera 1.500.000 Pta.

ttipi-ttapa

*6.000 harpidedun
20.000 irakurle*

*ttipi-ttapan
Zure klienteek
ikusiko dute
zure publizitatea*



Egin 95-VI-1 II

«Onartu beharra dago autobia autoendako aurrerakuntza bat dela eta hogei minutu lehenago ailegatzeko dela. Baina hogei minuturengatik ez dugu uste merezi duenik egin dutena egin izanak».

Tomas eta Trini
Aresokoak
Egin 95-VI-11


«Nafarroako buruzagiek euskara nahi dute; ez, ordea, euskaldunik. Euskara oroitzapentzat, Nafarroaren historiako

liburuetan lore apaingarriztat. Euskara hila nahi dute, ez euskara bizia».

Pello APEZETXEA
Apeza. Bortziriak
Egin 95-VI-21

◆ Oporretan zer?

- ◆ Oporretan lana.
- ◆ **Norat ez zinateke joanen oporretan?**
- ◆ Leku politikak badaude alde guzitan.
- ◆ **Noizko Euskal Unibertsitate bat Iparraldean?**
- ◆ Ez dakit, lehenbailehen beharrezkoa da.
- ◆ **Nola ikusten duzu iparraldeko gazte mugimendua?**
- ◆ Ongi, badira gauza ainitz egiteko eta gai horretaz luze solasten ahal litaike.
- ◆ **Emakume bazina, zein lanbide izan nahiko zenuke?**
- ◆ Emakumeek ere gizonen lanbide berak izaten ahal dituzte. Hortaz, orain egin nahi dudana gauza bera eginen nuke.
- ◆ **Lehen muxua non eta noiz?**
- ◆ Ez naiz ongi oroitzen baina 15 urtekin edo hola izanen zen, Beran.
- ◆ **Norekin pasatuko zenituzke gustura solasean pare bat ordu?**
- ◆ Zehazki ez zait pertsona bat bururatzen, baina edozeinekin, hori ibapatean sumatzen da.
- ◆ **Sarako zein xoko erakutsiko zenioke kanpotar bati? Eta zein izkutatuko?**
- ◆ Sara bere osotasunean polita da. Norbait horri, menditik erakutsiko nioke herria. Eta izkutatu, 'l'un des plus beaux villages de France' dioten bide-seinale horiek.
- ◆ **Besteengan onartzen ez duzuna?**
- ◆ Hipokresia eta gezurak erraitea.
- ◆ **Giza-balorerik garrantzitsuenak?**
- ◆ Egia erraitea eta sintzeroa izatea.
- ◆ **Erosi duzun azken arropa?**
- ◆ 'Fugazi' taldearen kamiseta bat.



Frederick BERRUET
Sarako ikaslea eta euskara erakaslea



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa
☎ 63 09 67
BERA

Boda eta banketeak ematen dira



ANSONEAA
JATETXEA

Kontsultatu menu bereziak

Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630072 • **BERA**



• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak

Eztegara 19 • ☎ 63 02 40
BERA

Bera

'Lore Jokoak 95' arrakastaz burutu zen

Lamixine antzerki taldeak prestatutako emanaldiak jendetza haundia bildu zuen

KRISTINA BOAN

Lore Jokoak-95 egitarauaren barnean antolatutako ekitaldiak arrakasta haundia izan zuten. Larunbatean, liburu kankailuaren aurkezpenean gainezka ageri zen Kultur Etxea. Igandeko antzerki saioari dagokionez, Lamixine antzerki taldeak, herriko hainbat talderekin batera komedia irri-garria antzestu zuten Berako karrketan barena. Arratsean, literatura lehiaketako sa-



Herriko karrketan barna egin zen antzesprenak izugarrizko jendetza erakarri zuen

Arg.: Bixente TABERNA

riak banatu ziren: Olerkietan, Donostiako Mirari Garcia de Cortazar

izan zen irabazlea eta Berangoko Xabier Unanue bigarren. Na-

rratiban, Iruñeako Francisco Javier Mangadok poltsikoratu

zuen lehen saria eta Mikel Taberna beratarrak bigarrena.

ttipi-flash

❖ **Igerilekuak** heldu den irailara arte ideki dituzte. Bonoak Herriko Etxeko idazkaritzan egiten ahal dira. Hiru prezio daude: 16 urtetik goitikoek, 3.980 pta., 10 eta 16 urte artekoek, 1.590 pta. eta 7 eta 10 urte bitartekoek 675 pta. Bertzalde, urtero bezala, uztailean igeriketa ikastaroak antolatuko dira, igeritokian bertan eman beharko delarik izena.

Udal korporazio berria ekainaren 17an osatu zen

Ekainaren 17ko eguerdiko bitan eratu zen udal korporazio berria. Alkatea, jakinadenez, Herrialdeko Manuel Iriarte izanenda eta zinegotzien artean Josu Unсион be-ratar preso politikoa dago. Josu Madriletik Iruñeara ekarria zuten ortzegunerako eta 17an plenoan parte

hartu zuen. Familia-ekin egoten utzi bazioten ere, traba aunitz jarri zituzten goardiazibilek Herriko Etxeko plazan bilduak zeuden 500 bat bortziritarren aitzinean agertzeko. Bere ahot-sa aditzearekin konformatu behar izan zuten plenora igan ezin izan zutenek.

Josu Unсион zinegotziak bere kargua hartu zuen segurtasun neurri ikaragarrien artean

Arg.: GOIKO



BOAN
TAILERRA
 CITROEN Banatzailea
AUTO BERRIEN
ERAKUSKETA ETA SALMENTA
 ☎ 63 06 23 • BERA

GRUPO  **ZURICH**
ASEGURO OROKORRAK
 Itzea, 4 — BERA — ☎ 63 07 63

LABEZAR
 ☎ 631076 • BERA

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
 Altzate 28 • BERA

Errekalde ostatua

Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
 Tfnoa: 630259 - BERA

Lesaka

Urrezko Ezteiak bete dituzteneak besta izan zuten ekainaren 20an

Avelino Susperregi eta Baldomera Otxoteko eta Jose M^a Irurieta eta Maria Larralde 50 urte egin dituzte ezkondurik

AITOR AROZENA

Ekainaren 20an ospatu zen Lesakan aurten Urrezko Ezteiak ospatzen dituztenen omenez CANek antolatutako besta. Aurten Avelino Susperregi eta Baldomera Etxepeteleku, eta Jose M^a Irurieta eta Maria Larralde osatutako bikoteek 50 urte bete dituzte ezkondurik. Azken hauek, arrazoi pertsonalak medio ezin izan zuten bestan parte hartu. Goizetik, Santiago Irigoienek zuzendutako txistulari bandak kalejira egin zuen herrian barna. Mezan, bertso-lariak eta Miguel San Miguel tenorea aritu ziren belarriak goxatzen eta mezaren ondotik, hainbat lagun elkartzu ziren frontoiko bazkarian. Bazkal aitzinetik, Endika Mendegiak aurraskua dantzatu zien omenduei eta bazkal ondotik 'cuplet' musika aditu eta dantzarako umorerik ez zen faltatu.



Endika Mendegiak aurraskua eskeini zien Baldomera eta Avelinori; Jose M^a eta Mariak ezin izan zuten bestan egon Arg.: Aitor

El Salvadorren jostungintza tailerra osatzeko dirulaguntza eskatu dute hiru lesakarak

Joan den urtarriletik Ertamerikan daude Garbiñe Larralde, Amaia Larralde eta Mertxe Rekondo gazte lesakarrak. Momentu honetan El Salvadorreko Ciudad Romero daude eta bertan zenbait lan burutu nahian dabilta. Kontuan hartu behar da 700 biz-

tanleko herria dela Ciudad Romero, elektrizitate eta ur instalaziorik gabe eta baldintza hagitz gogorretan bizi dira. Hiru emakume lesakarak herri hortako emakume talde bati lagundu nahi diote jostungintza tailer bat osatzen eta horretarako guttienez

100.000 pezeta behariko lituzkete. Norbaitek dirulaguntza bat eman nahi izanez gero, Nafarroako Aurrezki Kutxako zenbaki honetan egiten ahal da diru sarrera: 1180449.4.

Hasieran, uztaila arte egon behar bazuten ere, abendura arte luzatuko dute egonaldia.

ttipi-flash

◆ Superabita

Joan den urteko kontuak superabitarekin itxi ditu udalak. Herriko Etxean ia 17 milioi gelditu dira eta Andra Mari erresidentzian 4.273.241 pezeta. EA onartzearen kontra azaldu zen.

◆ Txoznarik ez

Gazte Asanbladak sanferminetan aparkalekuan txoznartzeko eskariari ezezkoa eman zion udalak, leku hori bertze gauza batzutarako behar dela erranez.

◆ Peñen bazkaria

Baikorrak peñako kideek uztailaren 3ra arte izanen dute aurtengo peñen eguneko bazkarirako apuntatzeko. Izen ematea Koxkilan egin behar da, 2.500 pezeta utziz.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

LESKA

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Plaza Berria, 13
☎ 948 - 62 75 47
LESKA
Lagunekin elkartzeko toki egokia

24 ORDUKO BUS ZERBITZUA

- 17 jarlekuko mikrobusera
- 55 jarlekuko autobusera
- Afari, despedida, sagardotegietara joateko

☎ (943) 300139 • 908.671469 • ANDOAIN

ALBAITARITZA KLINIKA
ORDUTEGIA
9,30etatik Tetara eta 5etatik Setara
Larunbatetan 9,30etatik Tetara
Albistur 51, ☎ 627660 LESKA

Etxelar

Kultur Egunak bizigarriak izan dira herriarentzat

Legasako Jose M^a Etxart, gasna lehiaketako irabazlea

PELLO ETA ALBERTO

Hilaren 11 eta 18an antolatutako ekitaldiak bizigarriak gertatu dira, herriaren eguneko bizitza bizteko, alegia. Gasna lehiaketa eta salmenta, eskulangintza erakusketa, inork espero ez zuen herritarren eskulanean erakusketa. Plazan bertako bazkariak, bertsolariak. Eguraldiak ez zuen, behar bada, gehiegi lagundu.

Haurren egunean, bai, eguzkiak erakutsi zuen bere irri goxoa eta haurrak gozatzeko aukeraz gain, haurren mundu horren ezagutzeko eta berorregana hurbiltzeko parada ederra izan zuten heldu eta adinekoek.



Herritarrek bi urte hauetan eskulan ikastaroan egindako lan batzuk



Eguerdian, gasna feria eta artisauen inguruan bildutako jendea

GASNA LEHIAKETAKO SARIAK

Lehen saria Legasako Lantzubi gasnategiko Jose Mari Etxart-ek eraman zuen. Bigarrena, Donamaria gasnategiko Jose Gabriel Amigorenak poltsikoratu zuen eta hirugarrena, berriaz, Elizondoko Urruxka baserriko Joxepi Mihuraren eskuetara joan zen. Etxalarko gasna onenaren sariak Basatekobordako Isidro eta Irigoien-gobordako Isabelek jaso zituzten.



Jose M^a Etxart, aurtan 1. saria eraman zuena



Isidro eta Isabel, gasna lehiaketan herriko sarituak

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA



Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA



KIROLAK ZELA
Altzate 6, ☎ 63 05 98
BERA



ORDOKI ALTZARIAK

Estilo guzietako mobleak

Kalitatea prezio egokian

35 urteko esperientzia zure zerbitzura

- Jangelak, tresilloak, gazteendako mobleak, auxiliarrak...
- Paretako armarioak, zure logelarako egokiak eta neurriak eginak
- Kutxa, platero, eserleku, etabarretan aukera zabala.
- Moble zaharrak eta zaharberriak

ERAKUSKETAK: Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALMENTAK: Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034 - LESAKA



Korpus egunean ohiturak berreskuratu dira

Gimnasia ikastaroa, bertzalde, akabatu da eta pala txapelketari hasiera eman zaio

PATRI ARBURUA

Ekainaren 18an, Korpus egunean prozesioa lehen egiten zen modura egin zen. Erran behar da jende aunitzek parte hartu zuela. Prozesioaren ibilbidea hauxe izan zen: elizatik atera eta Plazenta barrena herriari buelta eman zitzaion, bigarrena lore hostoek eta iratzez bete zegoela. Allinean, berriz, aldarrea paratu zuten eta handik elizara bueltatu ziren.

Gimnasia ikastaro bukaera

Gimnasia ikastaroa akabatu da. Horregatik, ikasturteari agurra emateko, ikastaroan ibili direnek irakasle-



Jone, Leire, Lorena, Mikel eta Gillermok Komunioa egin zuten ekainaren 12an. Igerilekuak, berriz, irekiak daude ekainaren 15az geroztik



Argazkia: OSKAR

arekin batera egun pasa egin zuten Hondarribian ekainaren 19an. Hondarribia ikusi ondoren, bertan bazkaldu eta arratsaldean bar-kuz ibili ziren.

Pala txapelketa hasi da

Pala txapelketaren hamabortzgarren edi-

zioari hasiera eman zitzaion ekainaren 17an. Beti bezala, Igantziko Biltoki elkarteak antolatu du.

Aurten bi talde daude, bakoitza sei bikoitez osatua. Hauek larunbat arratsaldetan eta igande goizetan arituko dira. Finalerdiak uztailearen 29an izanen

dira eta finala eta aforia, berriz, abuztuaren 5ean.

Abesbatza barkazioan

Igantziko abesbatzak ere barkazioak hartu ditu. Abuztuaren 18an hasiko dira berriz ere entsaiotan, euren ahotsak eta kantutak lantzen

Bentetako zubia itxia

Hurrengo hilabeteetan Bentetako zubiko obrak egiten arituko direnez, trenabidetik edo, semaforoaren esperoan egon nahi ez duenak, Lesakako bidetik ibili beharko dute igantziarrek eta arantzarek.


GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK

Altzate, 5 Tfnoa: 63 00 83 BERA

SAROBE

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

ttipi-ttapa

6.000 harpidedun
20.000 irakurle

PIKABEA
platarak

Lehen Molinero
izandakoak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • 630240 - 631495 • BERA



© 635290
ETXALAR

**HERRIKO
OSTATUA**

Jatetxea

*Lagun artean
goxo-goxo egoteko
leku egokia*



Trinitate egunean herriko hainbat jende joan zen ermitara

Bertzalde, aurtengo igeriketa ikastaroa Beran egin ordez Igantzin egingen da

GARBINE ETA ELIXABET

Ekainaren 11n Trinitate Eguna ospatu zen. Nahiz eta goizean eguraldi txarra egin, Arantzatik jende mordoxka animatu zen Trinitateko ermitara igaitera. Goizean ermitan meza izan zen. Eguerdian, Ekaitza elkarteak antolatuta Senberreko Bordan bazkaria egin zen. Bazkarian adin guztietako jendea bildu zen besta giroan. Amaieran, herriko trikitilari gazteak giroa gehiago alaitzea lortu zuten.

Igeriketa ikastaroa Igantzin

Arantzako eskolako guraso elkarteak urtero Beran egiten den igeriketa ikastaroa aurtengo Igantzin egitea erabaki du. Berako igerilekuak eskeintzen zizkieten zerbitzu berdina eskeintzen dizkiote Igantzikoak.




Senberreko Bordako bazkarian 60 bat pertsona elkartu ziren

Gimnasia ikastaroa akabtu da

Jubilatuena gimnasia taldeak aurtengo ikastaroa bukatu du. Azken egunean eskurtsioa antolatu zuten Hondarribira. Bazkaria Hondarribiako faroan egin eta bazkailondoan Joaquinek bere akordeoiarekin giroa alaitu zuen.

Zerrado auzoan, auzolanean moldatu dute bidea, 1.179 metroan. Aurrekontu osoa 3.194.227 pezetakoa izan da, hortik % 20a Arantzako udalak emana (715.516 pta.)
M^o Carmen



Jaunartzea

Ekainaren 18an, Besta Berri egunarekin batera, jaunartzea ospatu zen. Zazpi haurrek lehen jaunartzea egin zuten.

Herri Kirolak

Kadete eta infantil mailako herri kirol taldeak finala jokatu zuen Elizondon. Infantilak, proba konbinatuan hirugarrenak gelditu ziren eta kadeteak proba konbinatuan lehendabizikoak eta sokatiran berri, laugarrenak.



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

Angel Manuel Belio

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
© 943 - 61 50 55

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 630735 • IRUN © (943) 622305



ttipi-ttapa

6.000 harpidedun 20.000 irakurle
ttipi-ttaparekin zure publizitate
zonalako sukalde-xoko guztian izanen duzu

Sunbilla

Ekainaren 17an ideki zen herriko igerilekua

Margari Capdeki, Sagra Imaz eta Ascen Ibarra izanen dira aurten ere pistzinazainak

IXABEL ETA JOSUNE

Ekainaren 17an ideki zen herriko igerilekua eta idekiz geroztik eguraldia laguntzen ari da, jende aldetik arrakasta haundia lortuz. Aurtengo langileak, joan den urteko berak izanen dira: Margari Capdeki, Sagra Imaz eta Ascen Ibarra, INEMetik hartuak. Pistzinazaina izateko hiruko taldea aurkeztea eta horietatik bi sokorrista titulua izatea nahitaezkoa zen. Lan egiteko prest jende gehiago bazegoen ere, bi bakarrik ziren sokorrista tituluarekin, Margari eta Sagra, Lesakan bi hilabeteko ikastaroa egin eta azterketa gainditu baitzuten.



Jende aunitzek parte hartu zen prozesioan



Margari, Sagra eta Ascen pistzinan
Ixabel Maia

Mendaur Eguna

Ekainaren 11n Mendaur eguna izan zen eta urtero bezala jende franko joan zen, nahiz eta eguraldiak ez lagundu. Urtero bezala udaleko kideek bertze zenbaitzurekin batera Arretxekobordan bazkaldu zuten. Bertze

talde batek mendian egiten du bazkaria eta aurten, besta segitzeko, trikitalari talde batekin dantzaldia antolatuz Ulibeltzak elkarteari. Giro polita izan zen eta zozketatutako magra Karmen txuk irabazi zuen.

Corpus Eguna

Ekainaren 18an ospatu zen Corpus eguna eta udal berriaren tizat lehen agerpena izan zen. Prozesioa karrika nagusian barna izan zen, zubi batetik atera eta bertetik buelta. Karrika hagitz ongi apaindua zegoen.

Oharra

TTIPI-TTAPAKO 159. zenbakian agertzen zen Ozpide karrika konpondu behar duteta eta hor sortu dira kezka batzuk. Udalak, karrika hau Eskolene etxeraino moldatuko dela adierazi nahi du, lerro hauen bitartez.



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

LIZUN

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA

MariCruz
LENTZERIA

Parrokia 11, Tfnoa: 45 01 12 - **DONEZTEBE**



Moble berriak erakusketan

TELLETXEA
MOBLEAK

Moble modelo berriak
Burdin eta zura konbinazioak

Rosa Seminario z/g • © 45 02 58 • **DONEZTEBE**

Malerreka

Arrakasta haundia izan du Kukumiku lehiaketak

Urrezko Ezteiak betetzen dituztenak eta Arkupeak elkartearen bederatzigarren urteurrena ere gogoratuko dira

TXEMA ETA KARMELO

Aurtizen eta Donezteben kanporaketak egin ondotik ekainaren 10ean ospatu zen finala Legasan Langarrak antolatutako Kukumiku kultur lehiaketa. Orain arte egin den lehenbiziko saiakera honek arrakasta haundia izan du, saio bakoitzean 50 eta 70en bat ikusle izan baitziren, gehienak gazteak. Parte hartu zuten bikoteak ere hagitz pozik gelditu ziren, ez baitzuten uste hainbetez sari emanen zirenik eta lehiaketa honen helburua haien kultur maila neurtzea ez bazen ere, maila ona erakutsi dute. Irabazleak, Legasako Izaskun Etxart eta Nerea Zelaieta izan dira, bigarrenak Doneztebeko Juan San Miguel eta Mikel Meoki, hirugarrenak Iturengo Letizia Ariztoi eta Ainhoa Bazleztana, laugarrenak Doneztebeko Ai-



Langarra taldeak antolatutako Kukumiku lehiaketako irabazleak gustora ageri ziren lortutako sariekin

tziber Erasun eta Beatriz Ostolaza eta bortzgarrenak Doneztebeko Joxe Mitxelorena eta Iturengo Leire Iparagirre. Azken saioa Xorroxin irratiak zuzenean eskaini zuen eta antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete sariak eman dituzten Doneztebeko banku eta komertzioei eta lagundu duten guziei

Sakanakoak nagusi Nafarroako trikitilari txapelketako lehen kanporaketan

Ekainaren 18an burutu zen Doneztebeko Bordatxo dantzalekuan Nafarroako trikitilari txapelketako lehen kanporaketa. Bertan Sakanako Irune Agirre eta Onditz Artieda nagusi ziren. Bigarrenak, Iñaki Mendinueta eta

Iñaki Mundiñano, hauek ere sakanarrak, izan ziren. Hirugarren postuan Arantxa eta Irune Ariztegi iturendarrak, Ainhara eta Arkaitz Mindegia (Ituren) eta ondotik, Aitziber Mindegia (Ituren) eta Amaia Arretxea (Sunbilla), Amaia

Omenaldia

Ekainaren 30ean Arkupeak jubilatuta eta pentsionisten elkarteak omenaldia eskainiko die Baztan, Bortzirriak, Malerreka eta Leitzaldean 50 urte ezkondurik betetzen dituzten hamasei bikoteei eta aurten 85 urte beteko dituzten berrogeita hamar gizaseme eta emakumeei.

Goizean meza dute, bertsolari eta Amaia Zubiriaren kantaldia-ekin. Ondotik, bazkaria eta dantzaldia Bordatxon.

Ariztegi eta Xabier Ariztegi (Ituren) eta Saioa Taberna eta Olatz Apezetxea (Goizueta) sailkatu ziren.

Arbizun, larunbatean egin zen bigarren kanporaketa eta finala, uztailean Ilean burutuko da Iruñeako San Francisco plazan.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 orduko zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irongo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

SALDIASko zerrategia

Eraikuntzarako estrukturalak eta enbalajeak

Zubizarra, © 615108 eta 615044 • SALDIAS

Malerreka

Argi linea berria jarriko du Iturengo zentralak

Aurtizko zentrala eta Armaurriko zentralaren artean jarriko dute

IBAN ISASI

Iturengo udalak oneritza eman zion Iturengo zentralak aireko argi linea bat Aurtizko zentralaren eta Armaurriko zentralaren artean jartzeko dagoen asmoari. Ingurugiroa babesteko araudiak eskatutakoa betetzen duela ikusi ondotik hartu zuen erabakia udalak.

Dena den, ekainaren 23a arteko tarte zegoen ikusteko edo oharrak egiteko, udal txeko idazkaritzan jendeurrean baitzegoen espediente hau: ikusteko edo interesatuek oharrak egin zituzten.

Corpus Cristi besta

Ekainaren 18an Corpus Cristi besta os-



Itxura berria hartu du plazak

patu zen Iturenen. Aurreko egunean udal berriaren konstituzioa egin zuten hurrengo lau urtetarako Jose Iparagirre, aurreko lau urtetako alkateak hartuz berriro udal gober-

nuaren buruzagitza. Berekin batera, bertze sei zinegotzi sartu dira, lau EAkoak eta bi HBkoak.

Corpus Cristi egunean, udal zahar eta berrikoek parte hartu zu-

ten Aurtizko ostatuan egindako bazkarian.

Arratsalde ez zen txistularirik egon herriko plazan. Aurtengoan, dirudienez, lan hortan aritzen dena, gaixorik zegoen.

Zuzenketak

Aitzineko alean, Iturengo urak NILSAK bere gain hartu dituela aipatu genuen. Herriko Etxetik adierazi dutenez, NILSAK proiektua eta obra egin du eta udalak, gestio gastu eta IVaren ordeztuz, aurrekontuaren % 1a ordaintzen dio. Lanak akitutakoan ordea, kontadoreen gestioa eta uraren kobraketa, Doneztebe, Elgorriaga eta Sunbilla-ekin batera egin nahi den Mankomunidade baten gain joan den litzateke.

Bertzalde, udal idazkariak aipatu duenez, Herriko Etxeko kutxan bi milioi inguru geldituko dira, ordainketak eta kobraketa kitatu ondoren.

Ezkondu gabeko bikoteen udal erregistroa egiten Zubietako udala aintzindari

Nafarroa osoan aukera hori ematen duen lehen Herriko Etxea da

TTIPI-TTAPA

Zubietako udala izan da Nafarroa osoan, "Ezkondu gabeko bikoteen udal erregistroa" martxan jarri duen lehen Herriko Etxea. Zerbitzu honen bitartez, ezkondu nahi ez duten bikoteei beraien egoera erregularizatzeko aukera eman nahi zaie.

Erregistro honetan izena emateko, biko-

teko kide bat bederen, Zubietako erroldan apuntatua egon behar du eta bikotea noiztik osatzen duten, seme-alabik baduten edo akordio ekonomikoa zehaztuko dira. Sexu bereko bikoteek ere zabalik dute bertan izena emateko aukera.

Erregistroko datuak sekretoak dira, eta bikotearen baimena behar da argitaratzeko.

Nafarroan aintzindari den zerbitzu honek ezkondu gabe dauden bikoteen egoera normaldu nahi du





MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

**Euskara
merkataritza
munduan**

Joan den irailean Euskara Zerbitzuak ekin zion **Mer-
katal munduan euskara
sustatzeko egitasmoari**.
Malerrekako denda, taberna,
aseguruete, tailer, kutxa, e.a.
bisitatzeko hasi ziren bisitari
lanetan aritu ziren bertako hiru
gazte: Urrozko Josebe
Aldabe, Lino Elizalde zubietarra
eta Garbiñe Leitza aurtiz-
tarra.

Lehenengo bisita horretan es-
tablezimenduko hizkuntz ego-
era zehazki deskribatu zuten
eta euskarara itzultzeko ma-
teriala jaso. 146 establezi-
mendu bisitatu zituzten, on-
doko hiru helburu nagusiok
zituen egitasmo honen hasie-
rako fase honetan:

- Bizitza sozialean hain gar-
rantsuak diren establezi-
mendu komertzialetan euska-
raren presentzia haunditzea.

- Enplegatuen euskara maila
hobetzea.

- Barne nahiz kanpo harrema-
nak euskaraz garatuko dituen
establezimendu-sarea sor-
tzea.

Bigarren bisitan bisitariak hel-
buru hauek betetzen hasteko
zenbait eskeintza egin zieten
dendariak:

- Beren establezimenduetan
paratutako **idazkiak itzul-
tzea**.

- Dendarien euskara maila
hobetzeko **ikastaroak**.

- Barne **funtzionamendua
eta harremanak euskaraz
egitea**.

Hiru eskeintzok dendariak
hartutako konpromezu bate-
an bildu ziren: **hitzarmen**
batean. Honetan dendariak
bere burua inplikatu eta eus-
kararen alde egin nahi zuten
hori bertzerik ez zuten egin.
Egitasmoak, bertalde, Ma-
lerrekako merkatal munduko
hizkuntz egoeraren erradio-
grafia zehatza eman digu. Ikus

MALERREKAKO EUSKARA BATZORDEAK ESKERTZA PUBLIKOA

ezaugarri nagusiak I. koadro-
an.

Dendari euskaldunen kopu-
ruek altua bada ere, hauen
ezagupena herriko banazber-
tzekoa baino tikiagoa da:

- %87 euskaldun Malerrekan
- %73,6 euskaldun dendarien
artean.

Honek erakusten digu merka-
taritza munduan euskara sus-
tatzeak hizkuntzaren normali-
zazioari egiten ahal dion me-
sedea, Donezteben batik bat,
non Malerreka osoko estable-
zimendurik gehienak biltzen
baitira.

Erabat erdaldunak (langile gu-
ziak eta arduraduna erdaldun-
ak) diren establezimenduak
%13 bertzerik ez da Male-
rrekan, mistoak (arduradun-
enplegatu euskaldun eta er-
daldunak) %32,9, eta erabat
euskaldunak (langile guziak
euskaldunak) %54,1.

Ikerketak erakutsi digu beze-
roen arteko harremana eus-
kaldunena dela: %69,4tan eus-
karaz egiten delarik. Be-
zeroak dendariekin, berriz,
%55,6tan bertzerik ez dute
euskaraz egiten.

Beraz, beuren artean poliki
erabiltzen dute euskara.
Honetan eragina du, dudarik
gabe, ondoko herrietako eus-
kaldunek erosketak egitera
eta Doneztebera jotzeak,
hauek, aukera izanez gero be-
deren, euskara erabiltzeko jo-
era izaten baitute.

Euskararen idatzizko presen-
tzia hagitx murriztu da Male-
rrekan: (Ikus 2. koadroa).

Malerrekako Euskara Zerbi-
tzuak debaldeko zerbitzua es-
kaini du, eta halaxe egiten du
hemendik aitzinera, bertako
dendari guzietan bere estable-
zimenduetako idazkiak, erro-
tuloak eta klase guzietako ida-
tziak euskarara itzultzeko.



MALERREKAKO EUSKARA ZERBITZUAK KOMERTZIOETAKO ERROTULOAK ETA
KLASE GUZITAKO PAPERAK EUSKARARA ITZULTZEKO DEBALDEKO ZERBITZUA DU

I. KUADROA

Euskaldun Portzentaia Malerrekan: %87
Bisitaturako Establezimenduak: 146

| ARDURADUNAK | | ENPLEGATUAK | | DENDARI EUSK. |
|-------------|--------|-------------|--------------|---------------|
| Eusk. | Alfab. | Kop. | Eusk. Alfab. | Guziak |
| 97 | 20 | 241 | 188 49 | 285 |
| %66,4 | %20,6 | | %78 %26,1 | %73,6 |

2. KUADROA

| ERROTULOAK | | INPRIMAKIAK | | IDAZKI PROPIOAK |
|------------|-------------|-------------|-------------|------------------|
| Kop. | Eusk. Biet. | Kop. | Eusk. Biet. | Kop. Eusk. Biet. |
| 105 | 27 9 | 94 | 2 4 | 98 8 6 |
| | %25,7 %8,6 | | %2,1 %4,2 | %8,2 %6,1 |

20 orduko ikastaroak

Jaione Ezkurra,
Pili Inda,
Mari Karmen
Larrazintzar,
Josefina
Matxiñena,
Ixabel Urrotz,
Maite Zozaia,
Mari Paz Alonso,
Mari Karmen
Artzeluz,
Nekane Ezkurra,
Txeli Fuentes,
Iñaki Martinez,
Bixente Maylin,
Jose Antonio
Mendia, Maribi
Inbuluzketa eta
Josetxo Ruiz
Lopetedi.



ETA ARITU... GUSTORA ARITU DIRA NONBAIT, ZEREN HASIERAKO 20 ORDUAK ASKI EZ IZAKI ETA BERTZE 20 ERE EGIN DITUZTE, IKASTAROA APIRILAREN HONDARRERARTE LUZATUZ. BEHAR BEZALA AKITZEKO AFARI GOXO BAT EGIN ZUTEN. ARGAZKIAN AGERI DIRA AFARIRA JOATERIK IZAN ZUTENAK.

Hamabortz hauek ekin zioten abenturari. Zazpik Euskara Tekniko izeneko taldea osatu zuten, hau da, euskaraz solasteko gai izaki baina, idazten eta irakurtzen ez ohiturarik ez gaitasunik ez zutenek. Gainerako zortziak, berriz, Oinarrizko Euskara taldean sartu ziren, lehendabiziko urratsean, alegia. Eta aritu... gustora aritu dira nonbait, zeren hasierako 20 orduak aski ez izaki eta bertze 20 ere egin bait dituzte, ikastaroa apirilaren hondarrerarte luzatuz. Behar bezala akitzeko afari goxo bat egin zuten etortzerik izan zutenek

Zubietako Herriko Ostatuan (argazia lekuko).

Afaldordia momentua egokitzat hartuz, galdemodu zenbait egin genien, hala nola, ea nola ikusi duten merkatariak euskara ikasteko eskaini zitzaizkien aukera, ea gerora begira gisa honetako ikastaroak egiteak merezi duen, ea zer-bait ikasi duten, kontent diren, e.a., e.a., e.a.... Hona, bertzeak bertze, jasotako hainbat erantzun:

«...ikaragarri ongi iruditu zait euskarari egindako 'promozio' hau, interesgarria izateaz gain, merkatariok elkarrekin harremanetan jartzeko

era arrunt egoki eta atsegina izan baita... eta euskaraz!...» dio Mari Paz Alonsok. «... niri ikastaroa sobera llaburra egin zait eta, izandako esperientzia kontutan edukirik, jendea animatu eginen nuke hurrengorako izena ematera, beldurra alde batera uztera...» erran du Nekane Ezkurrak. Josetxo, Iturengo botikariak, berriz, zera dio: «Aitortu behar dut gure adina ez dela egokiena estudiantzen hasteko, baina, benetan ez naiz damutu... Ikasi ahala praktikatu gero, gure bezeroekin laster euskaraz aritzeko moduan egonen gara...».

Eritziak eritzi, denak bat etorri dira heldu den ikasturtean gisa honetako aukerarik izanez gero, jarraitu egingen lukezela aitortzearekin. baita oraingo honetan aritu ez direnei zera erratearekin ere: ANIMA ZAITEZTE!!

UEMA Malerrekan:

zaintza berezia merezi duen hazia

Zalantza betetik hasiko naiz: Pasatutakoa aztertu behar du? Etorrera? UEMA? UEMA eta Malerreka aproposagoa dirudi, baina...

Zer eta Non? Has gaitzen. UEMA zer dugu? Euskaraz funtzionatu nahi duten Udalerrien Mankomunitatea, hau da, zerbitzu hori eman nahi dutenak elkartzen dira elkarren arrimuan bete ahal izateko. Ez baita erraza! Trabak nabarmenagoak baitira laguntzak baino! Indarrak batuz... akaso. Indarrak batuz sor daiteke biztanleek legezko duten euskaraz atendituak izateko sarea, Udalak beuren egingizunetan beuren hiz-

kuntza erabiltzea,... Puntu honetara ailegatuz, hori guztia merezi duen galdetzen badidazu, ez segi irakurtzen. Zure buruari goitik behera hori egitea normala iduritzen bazaizu, Hor konpon!

Malerrekan, momentuz, Zubietan soilik eman dira lehen urratsak, Leitza, Goizueta eta Urdiainekin Nafarroan. Eta hemendik aurrera? Zuek eta zuen Udalak ikusi beharko duzue. Zein leike traba Eratsunen edo Urrotzen, Oitzen edo Iturenen? Biztanle gehiengo euskaldun nabarmena duten herrietan? Euskaldun ez direnei justiziapur bat egingen zaie. Moduak,

baliabideak, bertan daukagu: Teknikaria, IKA/AEK, Xorroxin eta Ttipi-Ttapa... eta UEMA, Idazkari eta Udalaren funtzionamendua errazteko, ikasitako guztia zuen eskueetan paratzeko.

Eta erdaldun puruak bihurtuko bagina? Nere aitaren etxea defendituko dut..., hark entenditu ezin duen hizkuntzan? Hain euskaldun ez diren herrietan; Bertizaranan, Sunbilla, Elgorriagan eta Donezteben? Gutxienezko batzuk jarri beharko dira. Merkataria euskalduntzen direlarik, Udalak ez? Ez dugu, bada, Udala guztiona? Zergatik zergak erdaraz ordaindu behar,


euskaldunak bagara? Udalak emaniko zerbitzua biztanleentzat baldin bada, beuren hizkuntz aniztasuna errespetatu beharko du, gutxienez. Are gehiago, oraindik baztertuak diren euskaldunak pare-ekartzeko laguntza bereziak behar dituzte. Eta hori, Udal gobernua duen kolorea duelarik: Gutxienezko eskubi-dea baitugu!

Eta injerentzia barkatuko dadelakoan, gauza bera esan daiteke Lesakan, Beran, eta Elizondon. Arantza, Igantzi eta Etxalar, berriz, noizko UEMAn sartzea?

Agur bero bat

Juainax Paul

Irakaskuntzaren egoera Malerrekan



Malerrekan Irakaskuntzan dugun egoeraren adierazgarri dira goian ageri diren datuak. Datu hauek, dena den, OHoko ikasle kopuruari dagozkionak dira, gainerako ikasketak egiteko, jakina denez, Malerrekatik ateratzeko beharra baita. Hori dela eta, gainean duzuen koadroan 1985az geroztik OHoko ikasle kopuruak D ereduaren izan duen eboluzioa ikusiko duzue.

Etengabe igoera dugu, beraz.

Hau da, tinko, indartsu eta ezinbertzeko erreferentziapuntu bihurtu da D ereduahondar urte hauetan.

Hona hemen, gisa berean, 3 urteko haurren matrikulazio berriak heldu dea urterako:

A ereduaren: 3 ikasle

B ereduaren: 7 ikasle

D ereduaren: 25 ikasle (+ 4 urteko 2 haur)

Udalekuak euskaraz

Ekitaldi honek honako ezaugarri hauek ditu:

• Nori dago zuzendua?

Malerreka eta Bortziritako OHoko 6. eta 7. mailako gaztetxo euskaldunak. Joaten ahal diren gaztetxoaren kopurua, dena den, mugatua da: 60 ikasle guztira, horren erdia Malerrekatik.

• Non eta noiz?

Gazteluko (Gipuzkoa) Herri Kultur Etxeak duen aterpean, uztailearen 24-31 bitartean.

• Begiraleak:

Bortz izanen dira, KAXERNA Aisialdi Taldekoak, Berakoak denak eta esperientzia haundikoak.

• Prezioa:

Hasiera bateko prezioa 20.000 pezetakoa bazen ere gaztetxo bakoitzeko, Euskadiko Kutzak eman duen dirulaguntzari esker 17.000 pezeta bertzerik ez da ordaindu beharko.

• Helburuak:

Alde batetik, azpimarratu beharra dago horrelako ekitaldi baten dakartzkien ondorio orokor onuragarriak: gizarteratzeko oinarriak sendotu, esperientzia berriak ikasbide aberatsa izanik nortasuna garatu,...

Bertze aldetik, euskararen erabileraren inguruko onurak ditugu aipagai: euskaraz egin aisialdiaren esparruko ekintzak, ezohiko egoeratan ohiko bihurtu euskararen presentzia eta erabilera, ...



MALERREKAKO EUSKARA
ZERBITZUAREN ARGITALPENA

**Euskara
merkataritza
munduan**

Euskararen aldeko hitzarmena sinatu dutenei **ESKER MILA!**

**Malerrekako
Mankomunitateko
herri guzien artean
80 establezimendu
izan dira (%58a),
euskara sustatzeko
HITZARMENA
sinatu dutenak.**

**Malerrekako
Euskara
Zerbitzuak
lauretan hoge
establezimendu
hauei **ESKERTZA
PUBLIKOA** egin
nahi die
Malerrekako
euskaltzale guzien
izenean, gure
hizkuntza
sustatzearen alde
erakutsi duten
borondatea dela
eta.**

**Hauei beraz,
GURE ESKERRIK
BEREZKOENAK,
eta gure animorik
bultzakorrena
abiatu diren bidean
aintzinerat
segitzeko.**

BEINTZA-LABAIEN

Antsolantzenea
Bar Esquina
Beintzako Ostatua
Don Fernandonea

DONAMARIA

Donamariako Benta

DONEZTEBE

Saioa Boutique
Bordatxo Dantzalekua
Hamabi Ostatua
Titi Ostatua-Anaiak
Belarra Kafetegia
Amezti Ostatua
Kontxa Ostatua
Arozena Ostatua
Apeztegia Berria
Txirrista Jantzidenda
Miren Papertegia
Bearzana
Zaldua Argazkidenda
M^a Jesus Iribarren
Ibarburu
Itxaso Arraindegia
Irigoi Arraindegia
Mena Argazkidenda
Mendaur Motor
Taberna Etxea
Daniel Elortza Harategia
Botika
Arco Iris Goxokidenda
Ezkurra Erretegia
Honorio Taberna
Tximeleta

Kalash
Kamamila
Ruiz Autozerbitzua
Saldias Harategia
Gurutze denda
Maylin Ostatua
Titare Jantzidenda
Lakanbra
Blas Liburudenda
L. Martin Harategia
M^a Cruz Lentzeria
Maylin Kirolidenda
Rodri
Kaxerna Ostatua
El Cafe Kafetegia
Ibarrola denda
Amaiur Sukaldeak
Nerea Oinetakoak
Jubilatu Etxea

ELGORRIAGA

Maitxenea Fonda
Hilarion Jatetxea
Amaia denda

ITUREN

Bereau Janaridenda
Botika
Aurtizko Ostatua

LEGASA

Opoka Ostatua
Gaztandegia
ARD eskulangileak

NARBARTE

Botika
Esther Loredenda
Janaridenda

SALDIAS

Ostatua
Olasoa Okindegia

SUNBILLA

Maite Ileapaindegia
Iruribieta Jatetxea
Pixarrena
Leku Eder Autozerbitzua
Bustitz Ostatua
Maia Ostatua
M^a Jesus Harategia
Botika
Tabakoak
Bibi Janaridenda
Fonda
Iribarren harategia

URROTZ

Herriko Ostatua

ZUBIETA

Etxekenea
Herriko Ostatua
Errandonea Ostatua
Santxokoa Okindegi-Ostatua

Malerreka

Pelikula emanaldiak herri guztietan uztailan zehar

Iaz egin zen beza-la, aurten ere Langarra euskara taldeak Malerrekako herri guztietan pelikula emanaldiak antolatu ditu. Uztailaren 10ean botako da lehenbiziko pelikula

Iturengo plazan eta hurrengoak segidan aipatzen diren herrietan izanen dira; uztailaren 11n, asteartea, Elgorriagan, 12an Oitzen, 13an, Ezkurran, 14an, Legasan, 17an, Dona-

marian, 18an, Saldiasen, 19an Eratsunen, 20an Donezteben, 21ean Beintza-Labaienen, 26an Narbarten, 27an Sunbillan, 28an Urrotzen eta azkenik, 31n Zubietan.

Pelikula guziak gaueko 10etan emanen dira herrietako frontoian edo, eguraldiak laguntzen ez badu, hurbilen dagoen aterperen batean (frontoi estalirik ez baldin bada).

Beintza-Labaiengo komunalak neurtzen aritu da teknikari bat

TTIPI-TTAPA

Beintza-Labaiengo udalak herriko lur eremuen kontzentrazio partzelarioa egiteko asmoa azaldu zion orain bi urte Nafarroako Gobernuari. Lehen erreklamazioak aztertu ondotik, orain, nahitaezkoa den bigarren pausua ematen hasiak dira, herri lurak edo komunalak zein diren zehaztea, hain zuzen ere.

Horretarako, Nafarroako Gobernuko teknikari bat etorria da asteotan beharrezko neurketak egitera. Ondoren, berak agindako txostena aztergai egonen da Herriko Etxean, norbaitek alegaziorik egin nahiko balu.


Euskara teknikari berria

Jose M^a Arakama, Etxarri-Aranazkoa da Malerrekako euskara teknikari berria, ekainaren hasieraz geroztik. Malerrekako Euskararen Normalizazio lanetan arituko da lanean, Paula Kasares-ek utzitako postuan.

Eramaten dena



Eramaten ahal duzuna



PTA. BITARTE

Orain, Caja Ruralen Visa Txartelak, uztailan zehar bere bidez ordaindutako erosketetan %5eko deskuentoa ematen dizu. Pentsa zenbat aurrezten ahal duzun. Caja Ruralen Visa Txartela erabili bertzerik ez duzu egin

behar, denda, jatetxe, hotel, bidai agentzia, gasolinera eta edozein establezimendutako gastuak eroso ordaintzeko. Eta hurrengo errezioban, hilabete osoan ordaindutakoaren %5eko deskuentoa egingen zaizu.



CAJA RURAL DE NAVARRA

* Deskuentoa baliagarria izateko, uztailan 1.000 pta. baino gehiagoko bartz erosketa edo gehiago egin behar dira, 50.000 pta. kopurua gaindituz. Deskuentoa txartelaren hilabeteko hurrengo errezioban zuzenean egingen da, fakturazioaren leheneko 200.000 pta. ren gainean.

1995EKO UZTAILAREN 1ETIK 31RA BALIAGARRIA DEN PROMOZIOA

Goizueta

Herritarren elkartasun mezua jaso zuen Juan Miguel Apezetxeak

Corpus Cristi eguna ospatu zen

ESTEBAN AROZENA

Espainiako hainbat espetxetan hamabost urte daramatzen Juan Miguel Apezetxeak 50 goizuetar, leitza eta larraundarren elkartasuna jaso zuen Burgoseko gartzelako ate aurrean egindako konzentrazio batean.

Kanta, dantza, bertso, trikitixa, irrintzi, itxafero eta aureskurik ez zen faltatu ordubete luze iraun zuen ekintza hunkigarri hartan. Baina ez zen horrekin agortu ekainaren 17ko elkartasun mezua, autobusa herriratu orduko beste ekitaldi bat burutu baitzen plazan helburu berberarekin.

Corpus Cristi

Garai bateko ospe eta haintzarik ez izan



Aureskua dantzatu zen Burgoseko kartzelaren atarieran Apezetxearen omenez

arren, Corpus Cristi jaiak badu oraindik erakargarritasun berezi bat goizuetar askorentzat. Joan den igandean zortzi, maindire edo jai horretarako propioak diren oihalak ikus zitezkeen balkoi eta leiho batzuetan, eta prozesioa igarotzen den kaleak ere iratze, iña eta lorez estalirik agertzen ziren. Mani-

festazio erlijioso honen buruan gurutze haundi bat zihoan, atzetik palioaren azpian apeza zetorrelarik.

Herritarbatzuentzat jai hau ez dela horretan bukatzen, prozesioan hankapetutako iratze eta iñak biltzeko ohiturak badu jarraitzaile oraindik, San Joan bezperan sutan erretzeko, hain zu-



Jendetza polita biltzen da oraindik Corpus Cristi prozesiorako

Arg.: ESTEBAN

zen ere. Zorte ona ekartzen omen du hori egiteak.

Trikitalari txapelketa

Nafarroako trikitixa txapelketan parte hartzen duten hamabost bikoteetatik lau goizuetarrak dira, hauen artean iaz bigarren postua eskuratu zuten Dani eta Ainara NARBARTE anai-arrebak

aurkitzen direlarik. Beste hiru bikotek Saioa Taberna eta Olatz Apezetxea, Irune eta Patxi Zabala eta Amaia eta Carolina Lujanbiok osatutakoak dira. Lerro hauek idazterakoan txapelketaren bigarren saioa oraindik burutzekoa zenez, ez dugu sailkapenaren berri ematerik izan ale honetan.

Araño

Mediku kontsulta eta ur deposito berriak martxan daude

Maiatza bukaeran estreinatu ziren, Bordaberri eta Beheko auzorako bideak bezalaxe

TTIPI-TTAPA

Maiatza bukaeraz geroztik martxan daude Aranón mediku kontsulta eta ur deposito berriak. Horretaz gain, Beheko Auzora eta Bentaberrira dararamaten bideak moldatu dira.

Juan Cruz Alli, Nafarroako lehendakari

riaren bisita programatua baldin bazegoen ere, azkenean ez zen etorri. Honela ezin izan zitzaion, Hernanirako karreteraren egoera penagarria azaldu.

Mediku kontsulta eta ur depositoa

Mediku kontsulta berriak 44,67 metroka-

rratu ditu medikuntza orokorra eta erizaintza gelaz gain, egongela eta komunak ditu. Guztira 5,9 milioi pezetako subentzioa jaso da Osasunbideatik, 5,1 milioi egiteko eta 790.530 pezeta ekipamendurako.

Ur deposito berriari dagokionez, 150 me-

tro kubikoko kapazitatea du eta 13,3 milioi pezetako subentzioa jaso du Nafarroako Gobernutik, aurrekontu osoaren % 80a, hain zuzen.

Bideak Beheko auzora eta Bordaberri

Beheko auzorako bidea 450 metrotan ze-

har ormigoiztatu da. Aurrekontua 4,8 milioikoa izan da, horietatik 4,8 subentziona-tuak. Bordaberriko bidean berriz, 675 metrotan bota da ormigoia. Kasu honetan, aurrekontua 5 milioi pezetakoa da, horietatik 3,3 milioi Nafarroako Gobernuak emanak.



Mikel Ilarregi (HB) da herriko alkate berria

Lehen alkate-ordetza EAri eskaini dio eta bigarrena UIUri

JOSEBA AZPIROZ

Hilaren 17an, goizeko 11tan egindako batzarrean, Mikel Ilarregi alkate izendatu zuten. Zinegotzi guztiek bere zerrendaburuari botoa eman ziotenez, botu gehien ateratako taldearen zerrendaburu izendatu zuten. Bozketaren ondoren, korporazio berriaren iharduera 'elkarlanean eta elkarriketan oinarritua egotea' espero zuela agertu zien zinegotziei. Udal batzarre bukatutakoan, idazkariak premiazko bilera bat eskatu zion korporazioari udalaren egoera ekonomiko larria azaltzeko. Bilera hori hilaren 20an burutu zen. Gaur egun, udalak dituen diru sarrerekin ezin dira funtzionamendu gastuak ordaindu, beraz oso zaila egingo zaie inbertsio berriak egitea. Orain arte ateratako mailegu edo



Elkarriketan eta elkarlanean oinarritu nahi du udal berriak hurrengo lau urteotako iharduera

prestamoen amortizazio eta interesengatik 1996. urtean 64 milioitik gora ordaindu behar dira eta 1997an, ia 69 milioi t'erdi.

ALKATETZAREN ORDUTEGIA

Astearte eta ostiraletan, goizeko 11etatik 13ak arte eta asteazkenetan arratsaldeko 6etatik 8ak arte egonena da.

Tresna eta ohitura zaharren erakusketa

Antolatzaileak oso pozik agertu dira orain arte erakusketak izan duen arrakastarengatik. Lehen egunean bakarrik, 405 lagun joan ziren Amazabal pilotalekura. Horretaz gain, goizez, eskolako haurrei erakusketa erakutsi eta zenbait zehaztasun esplikatzan dizkiete. Erakusketa egunetik

egunera osatzen doa, jendeak tresna berriak ekartzen dituelako. Uztaileko ekitaldiei dagokienez, Iean, larunbata, 8etan Alegiako Txintxarri eta Leitza Asketa abesbatzen kontzertuak eta 11etan Berako txaranga. Igan-dean, uztailak 2, XV. eskulangintza erakusketa: saskigintza, la-

ttipi-flash

Itturri-zaharreko etxea salgai

62 metro karratu dituen etxe hori pleugu itxien enkantearen bidez saltzea erabaki du udalak. Hasierako prezioa 1.153.600 pezetatant jarri da eta parte hartzeko behin-behineko fiantza 23.072 pezetatant. Eskaintzak aurkezteko epea bukatzerar dago.

rrua, harria... Ondoren, herri bazkaria 'Etzakit' trikitilari taldearekin eta Guillermo Segurola txiste kontalariarekin. 8an, igandea, diana musika eskolako trikitilari eta akordeolarien eskutik. 11,30etan kale animazioa; 12etan arpanlariak eta 6etan trikitilari eta akordeolariak.

**GAZTELU
ITURGINTZA**

KALEFAKZIOA

Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 •
LEITZA

Servicios Contables Leizaran, S.L.

AHOLKULARITZA KONTABLEA

- Enpresa berri ezberdinen sortzea.
- Kontabilitateak • IVA eta IRPF

Amazabal 31, Solairuarte • Tfnoa eta Faxe: 6106448 • LEITZA

**BEINTZAko
OSTATUA**

Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN



Esker Onak • Urtemugak • Eskelak

ttipi-ttapak

eskelak, urteurrenak edo esker onak agertzeko toki bat eskeintzen dizu.

Deitu gure telefonora: ☎ 63 11 88



Ornoz-Mugairiko plaza berria ekainaren 11n inauguratu zen

Zozaiako Jauregi errearen aldeko eskean, berriz, 2.770.000 pezeta bildu dira maizterrari emateko

Josu INZIARTE

Ekainaren 11n Oronoz-Mugairiko plazaren inaugurazio ofiziala izan zen. Herri bazkaria lehengo 'El Carmen' ikastetxean izan zuten, eguraldi txarra zela eta, 130 bazkalkide elkartuz. Segidan, Josetxo Arizkungo akordiolariaren eskutik dantzan ederki aritu ziren.

Orain dela urte bat hasi ziren plazaren egokitze lanak, egoera arras txarrean zegoela ikusita; ormigonatu, lauzatu eta bazterrak loratu egin dira. Diru aldetik, bi milioi t'erdikoa da Baztango udalak ordaindutako aurrekontua. Aipatzeakoa da moldaketak auzolanean egin direla eta ondorioz, aurrekontua merketu egin dela. Plazan paratu diren bankuak berriz, he-



Ekainaren 11n inauguratu zuten Oronozko plaza

Arg.: Josu INZIARTE

rritar batek urrik emanak dira.

ERRE ESKEA

Oronoz-Mugairin egindako batzarrean, bertzalde, Zozaiako jauregiaren aldeko erre-eskean bildutako dirua maizterrari ematea erabaki zen. Horre-

la bada, herriz herri bildutako 2.770.000 pezetak Martin Oharrirek hartuko ditu. Batzarrean aipatu zenez, Jauregia birmoldatzeko proiektua eta laister hasiko dira obrak. Alkateak, laguntza eman dutenak eskertu zituen.

Oiartzabal alkate

Ez zen ustekaberik izan udala osatzeko egin zen plenoan eta Oiartzabalek segituko du alkat, botu gehien hartu dituen zereendaren (EA) ordezkari bezala. Aitzineko asteetan, halere, nahiko gorabehera izan zen, UPN, UB eta HBko ordezkariak izandako bileraren ondorioz. Zenbait komunikabideetan, talde hauek elkartzeko asmoa -Meoki alkate izendatuz- zutela azaldu zen. HB eta UPNk informazioa gezurtatu zuten.

Gaztanberaren Kofradiak kide berriak izendatu zituen

JOSEBA IGARABIDE

Gaztanberaren Kofradiak ohorezko kide berriak izendatu zituen ekainaren 18an, Elizondon egindako urteroko bestan.

Eguneko ekitaldiei hasiera emateko, ongiatorria eskaini zitzaion Balleko Etxeko arkupetan ohorezko kofrade berriei eta bertze kofradietako kideei. Segidan, Gaztanberaren kofradiako ohorezko kide berriak izendatu ziren. Gaztanbera defundatzea zin egin zuten artean, bertzeak bertze Antxitonea trinketea, Pedro Subijana sukaldaria, Torroba musikaria, Mariano Izeta eta Erresidentziako monjak zeuden.

Arizkungo

bestetan, San Juan bezperan, ez da sorgin erretzerik izan aurtan, Inkisizioaren adierazle zelakoz. Azken urteetan ohi-tura zen sorgina erre-zea gau horretan.

Iñaki Martiarenak egin du Baztandarren Biltzarreko kartela

Iñaki Martiarena marrazkigile donostiarrak egindako kartelak iragarriko du uztailaren 16an ospatuko den Baztandarren Biltzarra.

Ohi bezala, 'Euskarak batzen gaitu' da

kartelaren lelo nagusia eta Baztango ikurraren fondo txuribeltzaren gainean, bestaren ezaugarri nabarmenenak ageri dira: lauburua, orga apaindua eta txistularia, hain zuzen.



JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO

Galarza

ARROPA DENDA

FANTXIKE
MERCERIA
JAIME URRTUTIA, 29
TFNO. 580312
ELIZONDO

CERVANTES
HELVETIA SEGUROS

Era guzietako aseguroak
Eska itzazu aurrekontuak
Juana M. Urrutia

Eskisaroi
Jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

Azpilkuetan ere Sanferminak ospatuko dituzte

Uztailaren 6ko eguerdian botako dute altxaferua eta uztailaren 10eko gauerdian, 'Pobre de Mi' kantatuko dute

Azpilkuetan, Iruñean eta Lesakan bezalaxe, Sanferminak ospatuko dituzte heldu den astean. Ez dute horrenbertze jende espero, baina herrikoendako eta bestak goxo ospatzera hurbildu nahi dutenendako egitarau zabala prestatu dute.

Ortzeguna 6

Eguerdiko 12etan altxaferoa botako dute Herriko plazatik. Gaueko 9etan, ezkil jotzea. 9,30etan afaria Herriko elkarteetan, Joxe Angel akordiolariaren laguntzarekin.

Ortzirala 7, San Fermin Eguna

10etan argi soinuak. 11etan Meza Nagusia, San Ferminen ohoretan. 10,30etan hameketakoa herriko elkarteetan. Eguerdian soinuak Modestorekin eta arratsaldean eta gauez, dantzaldia Modestorekin.

Larunbata 8, Haurren Eguna

10etan argi soinuak. 5etan txokolatada eta



haurrendako jokoak. 8,30etatik 10,30etara dantzaldia Yatagan taldearekin. Gauez gaupasa Yatagan taldearekin.

Igandea 9, Herrikoen Eguna

10etan argi soinuak. 11,30etan meza nagusia. 4etan mus txapelketa azkarra. Arratsaldean eta gauez dantzaldia Duo Paradise taldearekin.

Astlehena 10, zi-



Besta giroan murgilduta dabilta Baztan aldean. Goitiko bi argazkietan, Erratzuko zikiro-jatea eta garai batean egiten zen antzara jokoan, Juanito Irigoien eta Gregorio Etxarte.

Behitian berriz, Arizkungo txopo goratzea.

kiro besta

Goizeko 8etan su piztea eta gosaria. 2etan zikiro jatea. Arratsaldean eta gauez dantzaldia Modestorekin eta gauerdian 'Pobre de Mí'.

ttipi-flash

❖ Baztan ikastolak

250.000 pezetako dirulaguntza hartu du Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura sailetik, Italiako Trieste hiriko 'San Dorligo Valle Dolina' ikastetxearekin topaketak eta elkartruketak egiteko.

❖ Iruritako

Guraso elkarteak antolatuta, larunbat honetan Bordele ondoan dagoen ur parke batera joan dira.

❖ Suteei buruzko hitzaldia

Igande honetan, suteen aitzinean nola jokatu behar den erakutsiz hitzaldi bat burutu zen Arizkunengan.

❖ Marinen lanak Bordelen

Ana Mari Marin margolariak bere lanak Bordelen aurkeztu ditu ekainean. Harrera ona izan du kritikaren aldetik.

❖ Baztango mendigoizaleek

hamabortz herrien barnako ateraldia egiten zuten.



ZURE ARGAZKIAK ORDU BA TEAN EGITEN DITUGU

EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK

100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALITASUNA ESKEINIZ

ELIZONDO
Tel. 58 01 55

DONEZTEBE
Tel. Fax. 45 08 25



ERLOJU eta BITXI DENDA



ARRIETA
KIROL TROFEOAK



Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea

Etxeko gasnak saltzen ditugu

Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan



AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60




Rugby taldeak Frantziako xapelgoa bururatu du

Herriko bozak lehen itzulian trenkatu ziren eta Aintzinka taldeko Jean Aniotzbehare izanen da alkate

MIXEL ETA JACQUELINE

Euskal Herriko txapela jauntzi ondotik (Bazko egunean) bide beretik jarraitu dute eta erearoren I In Aiguillon-eko zelaian Frantziako finala irabazi dute Saint André de Roquelongue (Aude) gaindituz ttantto soil batez 9 eta 8. Erran gabe doa balentria horren egileak ohore haundirekin omenduak izan direla eta oraidanik desbiatzen agal diegu hurrengo sasoina aurtengoa bezain zoriontsua izaita.



Rugbilariak Ziburuko itsas-bazterrean ospatu zuten garaipena

Emaitzak

| | |
|------------------|----------------------------------|
| Finala 32. | Sara, 31; Ambes, 0. |
| Finala 16. | Sara, 63; Roumazieres, 15. |
| Finala 8. | Sara, 16; Montestruc, 9. |
| Finala laurdenak | Sara, 46; Labarthe sur leze, 11. |
| Finalaldiak | Sara, 14; Dieuolard, 13. |
| Finala | Sara, 9; Roquelongue, 8. |

Hauteskundeak

Herriko bozak lehen itzulian trenkatu dira. Oraingo herri kontseilua horrelaxe osatzen da: 15 hautetsi Aintzinka zerrendakoak eta 4 hautetsi

Hats Berri zerrendakoak. Jean Aniotzbehare gelditzen da auzapez. Hats Berri zerrendak jakinarazten du beren sustengua erakutsi duten guziak eskertzen dituela lerroon bidez.

Bosnian gairi

Guy Mounho saratar gaztea gure artean dugu lau hilabete Sarajevon iragan ondian, Forpronu erakundearen kide bezala. Baketzaren alde eman du urrats eder bat eta uste dugu Guyk ongi etorri berezi bat merezi duela eta abestiak dion bezala, oihuka dezakun denek elgarreki: 'Bazkezaleak gara, bakea nahi dugu'.

Balentria tristea Lizuniagan

Paul Dutournier zenari egindako oroit harria berriki tintaz zikindua izan da. Herriko Etxeak ekintza hori fermuki salatu du.



ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

Zaldubia Poligonoa • ☎ 580562
IRURITA - BAZTAN

SUKALDE ETA

BAINU MOBLEAK

Egoki-ren banatzaile baimendua



MENDI OSTATUA

Santiago 25 - ☎ 580313
ELIZONDO

SOULE

Gurutze eta hilarriak

☎ 453038 ARIZKUN
☎ 123572 IRUÑA

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.
Termita eta Polillen kontrako tratamendua



☎ 63 01 55
BERA


Urdazubi

Kurtso bukaerako besta burutu zuten eskolako neska-mutikoek

Arantxa Soubelet eta Elixabet Bengoetxea urdazubiarren eskutik izan zen musika

ALIZIA OLAIZOLA

Kurtsoa bukatzeko ekitaldiz betetako eguna izan zen. Ekainaren 23an eman zioten bukaera kurtsoari, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskoletan. Egun hau, besta batekin bukatu zuten hurrek, goizean aktibitate bereziak izanez. Antzerki talde bat ere izan zuten eta eguna ongi finitzeko bazkaria eta ondotik dantzaldia hemengo bi neskekin, Arantxa Soubelet eta Elixabet Bengoetxearekin. Bertzalde, bidaiak eginak dituzte,



Ailegatu dira udako oporrak

Artxiboa

tikienak Donostian goak Galizian pasatuz la bukatu dutenak ha-
egonez eta haundia- aste bat. Aurten 8. mai- mairu izan dira.

Lehenengo jaunartzerik ez da izan aurten

Besta Berri egunean, ekainaren 18an, izanen ziren, zuzen beharrean, aurtengo lehenengo jaunartzeak.

Joan den urtean lau haur baziren, aurten ez da izan bakarrik ere lehen jaunartzea egin duena. Herritar bat bazen, horretarako adinarekin, baina kanpogan egin zuen. Aspal-diko urtetan ez zen horrelakorik gertatu eta kezkatzen hasteko modukoa da.

Zugarramurdi

Ikasketa bidaian Galiziara joan dira eskolako haurrak

Kurtsoa bukatzeko, Shanbu antzerki taldea izan zen eskolan

KORO ETA MARGARI

Burutu dute aurtengo ikasketa bidaia Zugarramurdi eta Urdazubiko eskoletako hurrek. Aurten Galizia aldera gan dira eta aste bat ibili ondoren, ikus ezazue zein ongi aprobetxatu dituzten egun horiek: Burgos, Leon, eta Coruña hiriburuak ezagutu dituzte (azken honetan "Gizakiaren Museoa", Europan da goen bakarra bisitatuz).



Urdazubiko neska-mutikoak Santiago katedralearen aitzinean ateritako argazkian

Riak ere ikusi dituzte; 'Monte do Gozo'n, mendi bizikletan eta zaldian ibili ziren; herri zeltiar bat ezagutu zuten, Santiagoko katedrala, Miño ibaiaren uhobia eta azkenik Portugalera sarrera labur bat egin zuten.

KURTSO BUKAERA

Honenbertzez, kurtso bukaera ailegatu da eta nolazpaiteko despedida berezia egin nahian, ekainaren 23an, 'Shambu' Antzerki taldea egon zen eskoletako hurren gozamenerakoz.

EZKONTZAK

Fermin M^a Larralde Iraizoz eta **M^a Luisa Cordoba Saharrea**, Elizondo eta Azpilkuetakoa, ekainaren 10ean.
Miguel M^a Irisarri Cordoba eta **M^a Josefa Baltasar Alberro**, Iruñea eta Donostiakoa, Arizkunen, ekainaren 10ean.

Antonio Victo Pol eta **M^a Victoria Elizalde Urmeneta**, Kaskante eta Elizondokoa, ekainaren 17an.

Jose Ignacio Mortalena Oteiza eta **M^a Teresa Mariezkurrena Aleman**, Elizondokoak, ekainaren 17an.

Alejandro Carlos Parra Etxeberria eta **M^a Jesus Magdalena Eneterrea-ga Irigoien**, Lesakakoak, ekainaren 10ean.

Jose Manuel Elduaen Bilbao eta **Julia Vila Errandonea**, Hondarribia eta Berakoa, ekainaren 3an.

Jose M^a Ruiz Romero eta **M^a Jesus Altzuguren Dagerre**, Igantzi eta Berakoa, ekainaren 10ean.

JAIOTZAK

Adur Lazkano Olaberri, Leitzakoa, ekainaren 9an.

Mikel Oiartzabal Rodriguez, Goizuetakoa, ekainaren 7an.

Nagore Madariaga Iriarte, Sunbilakoa, ekainaren 20an.

HERIOTZAK

M^a Francisca Perurena Arribillaga, Leitzakoa, ekainaren 2an, 93 urte.

Luis Lopez de Suso Bazterra, Almandozen, ekainaren 7an, 30 urte.

Manuela Javiera Larregi Karrikaburu, Elbetekoa, ekainaren 10ean, 83 urte.

Oihana Olaskoaga Gonzalez, Etxalarkoa, ekainaren 11n, 19 urte.

Jon Irazoki Agirre, Berakoa, ekainaren 11n, 23 urte.

Fermina Galzagorri Soudre, Sarakoa, ekainaren 11n, 88 urte.

Jose Mikeo Gamio, Berakoa, ekainaren 20an, 53 urte.


Luis Etxeberria Elizondo, Arantzakoa, maiatzaren 26an, 33 urte.



*Jon Irazoki Agirre
eta
Oihana Olaskoaga
Gonzalez*

Ilargira plaust erori
biak eskutik igeri
Oroitzapenen soka hartuta
Gure ondora ateri!

**Zuen lehengusu-
lehengusinak**



BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak088/061

Osasun Zentruak

Elizondo..... 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitalea 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberduero 450335 / 450336

Finkatu dira Udalek Gobernutik hartuko dituzten diruak

Zergen-gaineko Partehartze Fondoetatik bideratuak dira

1995ean Nafarroako udal eta kontzejuek Nafarroako Gobernutik Transfrentzi Arrunten kontzeptupean hartuko dituzten diruak finkatu ziren ekainaren 12ko Gobernu Bazarrean.

Ondoko zutabeetan ageri dira Nafarroako mendialdeko herri bakoitzak hartuko dituen diru kopuruak. Kopuru hauek Zergen-gaineko Partehartze Fondoetatik bideratuak daude, eta urtean lau zatitan eskuratuko

| DIRU-KOPURUAK | |
|----------------------------|--------------------------|
| ARANTZA14.000.242 | ERATSUN3.321.515 |
| ARANO2.714.513 | EZKURRA4.378.152 |
| ARESO.....5.141.122 | GOIZUETA.....19.429.438 |
| BAZTAN.....158.797.430 | IGANTZI10.403.168 |
| BEINTZA-LAB.5.083.045 | ITUREN8.827.464 |
| BERA61.335.465 | LEITZA.....59.918.970 |
| BERTIZARANA.....3.666.460 | LESACA51.764.603 |
| Legasa.....3.173.101 | OITZ2.557.834 |
| Narbarte.....4.217.397 | SALDIAS2.881.834 |
| Oieregi.....1.026.409 | SUNBILLA12.184.064 |
| DONAMARIA.....5.507.549 | URDAZUBI7.792.231 |
| DONEZTEBE.....27.856.679 | URROTZ3.131.179 |
| ETXALAR14.768.409 | ZUBIETA6.476.125 |
| ELGORRIAGA.....2.840.835 | ZUGARRAMURDI ..6.314.967 |

dute udal eta kontzejuek, hiruhilabete bakoitzeko lehenbiziko hamabortzaldian.

Langile bat kontratatzekeo deialdia

Bortzrietako Oinarriko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, langile bat kontratatu nahi du 'Babesturiko Giza lana' izeneko proiektuan lan egiteko. Sei hilabeteko kontratua izanen da, egunean 3 orduko lanaldiarekin. Eskatzen diren baldintzen artean, Giza Zientziekin zerikusirik duen titulazioa izatea (Gizarte langileak, Edukatzaileak, Psikologoak...), euskalduna izatea eta autoa eta gidatzeko baimena izatea daude. Interesatuak uztailaren 4ko eguerdiko 12ak baino lehen Etxalarko Herriko Etxeko bulegoetan, eskaera eta kurrikuluma aurkeztu beharko dute.

Ikastetxe Publikoen jantokietarako dirulaguntzak

94-95eko azken hiruhilabeteari dagozkien dirulaguntzak onartu berri ditu Nafarroako Gobernuak.

ESKUALDE MAILAKOAK

Bera 884.169 Pta; Doneztebe 2,5 milioi; Goizueta 695.601 Pta; Leitza 1,5 milioi eta Lesaka 380.457 Pta..

HERRIKO JANTOKIAK

Amaiur 183.000 Pta; Arantza

298.000 Pta; Etxalar 267.000 Pta; Igantzi 167.000 Pta; Irurita-Baigorri 138.000 Pta eta Iturengoak 289.000 Pta.

BANAKAKOAK

Areso 10.000 Pta; Arraioz 42.000 Pta; Erratzu 42.000 Pta; Oronoz 74.000 Pta; Sunbilla 148.000 Pta; Ziga 74.000 Pta eta Urdazubi-Zugarramurdin 10.000 Pta.



Ikastaroa

Bertzko Partzuergo Turistikoak ikastaroa antolatzen du bere asoziatuendak. Doneztebeko INEMeko zuzendaria den Gloria Agerrik emanen du ikastaroa eta lan kontratazio sistemak, lan sustapenerako kontratuak, INEMek eskeintzen dituen zerbitzuak eta lan normatiba eta seguritate sozialari buruz arituko dira uztailaren 3 eta 4an. Interesatuak deitu 592323 telefonora.



EZKALO

Jose Antonio Elizondo • API 129

INFORMAZIOA:

☎ 451518 Doneztebe ☎ 23 48 30 Iruñea

Tfno. Mugikorra 908 - 77 76 96

Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

DONEZTEBE. Aparango industrialdean azkeneko pabilioiak salgai
150 m² pabilioia 59.000 pezetatan m² gehi IVA



ttipi-ttapa

6.000 harpidedun
20.000 irakurle

ttipi-ttapan
Zure anuntzioa
momenturo ikusten
du norbaitek

Samina eta atsekabea Bortzirietako kirol munduan

Berako Gure Txokoa taldeko Jon Irazoki jokalaria istripu batean hil zen, Oihana Olaskoaga etxalartarrarekin batera

Jon Irazoki Agirre 23 urteko beratarra eta Oihana Olaskoaga Gonzalez, 19 urteko etxalartarraren heriotzak nahigabea ekarri du Bortzirietako kirol mundura. Izan ere, Jon Irazoki Gure Txokoako futbol talde nagusiko kapitaina izateaz gain, jubenil mailan Lesakako Beti Gazten aritu zen, eta hainbat lagun utzi zituen bertan.

Erdialdean eta gibelkaldean jokatzen zuen jokalaria fina zen Jon, "edozeinek bere taldean izan nahi duen futbolaria" diote, eza-gutu zutenek.

Teknika ona edukitzeaz gain, kiroltasunez jokatzen zuen futbolaria zen eta azken denboraldietan kapitaina izan da Berako



Jon Irazoki, 23 urteko beratarra, (totorika, lehena ezkerretik hasita) Gure Txokoa taldeko kapitaina zen

Artxiboa

taldean. Istripuaren bezperan, denboraldi bukaerako afaria egin zuten Gure Txokoakoe eta Irazokik jokalaria onenaren saria jaso zuten.

Zoritxarreko istripua Berriplano inguruan gertatu zen. Jonek Oihana neskalagunarekin batera Iruñera joaki zela errepidetik atera zen gidatzen zuen

kotxea eta bapatean hil ziren biak.

Etxalar eta Beran egindako hileta elizkizunetara hainbat jende hurbildu zen beraien nahigabea adieraztera.

Joseba Lopezek irabazi zuen Lesakan 'VIII. Juan Altzugarai' jubenilendako txirrindularitza saria

Bi-Lux taldeko Joseba Lopez txirrindulariak irabazi zuen ekainaren 17an Lesakan burutu-tako 'VIII. Juan Altzugarai' saria.

Jubenilei zuzendutako laisterketa honetan 78 txirrindularik parte hartu zuten eta, beroa eta erritmo gogorraren ondorioz, 33k ezin izan zuten proba bukatu. Lopezen ondotik, 'Urtxintxa-CSTransformados' taldeko Jon Bru beratarra sailkatu zen 27 segundutara, aurten hagitz egoera onean da-

goela erakutsiz. Taldeka berriz, Bi-Luxekoak nagusitu ziren, hamar lehenbiziko postuetan bortz txirrindulari sartu baitziren.

Hainbat ihesaldi izan ziren arratsaldean zehar. Garrantzizuenak bi izan ziren, bata bortz txirrindularirekin eta 50. kilometroan desegin zena (tartean CSI taldeko Altuna sartu zen) eta bertzea sei lagunekoa, Piedadera igotzen hasi baino lehenxeago akautu zena. Ia urtero bezala,



Txirrindularitza probak furi-furian daude

Artxiboa

Piedadeko Gaina erabakikorra izan zen, bertan aldegin baitzuen taldetik Joseba Lopezek.

Lesakako helmugara bakar bakarrik iritsi zen, karrera bukatzeko bi ordu, 14 minutu eta

9 segundu behar izan zituelarik (orduko 38 kilometro t'erdiko media bikaina).

Sarako rugby taldea Frantziako xapeladun

Sarako Basurdeak rugby taldeak Frantziako xapelgoa eskuratu du Aiguillonoko zelaian, Saint André de Roquelonge taldeari 9-8 irabaziz.

Finalerako bidean, Ambes (31-0), Roumazieres (63-15), Montestruc (16-9), Labethe sur leze (46-11) eta Dieuolard (14-13) taldeak gaingitu zituen.

Kontuan hartu behar da Bazko egunean Euskal Herriko xapelgoa ere eskuratua zutela saratarrek. Beraz, denboraldi bikaina osatu dute aurtengoan. Zorionak eta segi hortan!



Denboraldia bukatuta hurrengora begira daude futbol taldeak

Orokorrean erdipurdiko denboraldia egin badute ere, Gure Txokoa, Baztan eta Aurrerak ez dute arazorik izan kategoriari eusteko

Aurtengo futbol denboraldia bukatu ondotik, datorren urteari begira hasiak dira eskualdeko taldeak.

Talde nagusiei dagokienez, Nafarroako Hirugarren mailan aritu den Baztanek arazorik gabe mantendu du kategoria eta horretaz gain, Mikel Garbalena izan da kategoriako golegile onenetariko bat.

Datorren urterako, seguraski Javier Amiano izanen dute berriro entrenatzaile lanean, berak eskatu bezala kadeteen talderako entrenatzailea topatzen bada behinpein.

Gipuzkoako Prefereente mailan jokatu duen Beti Gaztek kategoria galdu du aurtengoan, datorren denboraldian Berako bizilagunekin, Gure Txokoekin alegia, jokatu



Futbol denboraldia akautzearekin batera, balantzeak egin eta sariak emateko tenorea iristen da. Lesakako Beti Gaztek ekainaren 18an egin zuten denboraldi bukaerako bazkaria eta kiroltasunari dagokion sari banaketa. Haundietan Felix Irazoki, jubeniletan Xabier Iantzi, infantiletan Mikel Irigoien (argazkian ageri direnak), kadetetan Josu Almandoz, alebinetan Jon Telletxea eta benjaminetan Zumar Altzugarai izan dira aurtengo irabazleak

Arg.: Fidel ORDOKI

ko duelarik. Hauek, liga hasera kaxkarra egin bazuten, azkenean ez zuten arazorik izan

maila mantentzeko.

Leitzako Aurrerak azkenik, leku epelean ibili da aurren Nafarroako Erregionaleko

lehen mailan. Ez zuten igoera promozioan sartzerik izan.


Bote prontoan

❖ Bortzirietako futbol derbya

Ekainaren 17an jokatu zen Agerrako futbol zelaian Gure Txokoa eta Beti Gazte taldeko beterranoen arteko partidua. Orain dela urte batzuk zuten joku mailara iritsi ez baziren ere jokaldi politak ikusteko aukera izan zen. Azkeneko emaitzak (4 eta 0 beratarren alde) erakusten zuena baino norgehiagoka borrokatuagoa izan zen.

❖ Laxoa txapela Donezteben geldituko da

Igande honetan jokatu da laxoa txapelketaren finala. Lerro hauek idazterakoan talde txapelduna nor den jakiterik ez badago ere, gauza bat jakina da: Donezteben geldituko da txapela, herri honetako A eta B taldeak ailegatu baitira finale-ra.



Javier Amiano, urtebetez kadete mailako taldea entrenatzen aritu ondotik, aurtengoan Baztango futbol talde nagusiko ardura bereganatuko du. Bera izan zen taldea hirugarren mailara igo zuena orain bi denboraldi.

Argazkia: Artxiboa

Hamabostaldiko Jokaldiak



Sarako rugby taldea.

Aste Saindu inguruan Euskal Herriko txapela irabazteaz gain, oraingoan Frantziakoa irabazi dute, Saint André de Roquelonge taldeari 9-8 irabaziz finalean. Sarako basurdeek indartsu eta bizkor daudela erakutsi dute orain ere.

Doneztebeko laxoa taldeak.

Txapelketako finale-ra herri honetako bi talde iritsi dira. Zer da hori? Bertzei ere zer bait utzi behar zaie, bertzenaz emozio guttia galtzen baita... Gainerakoan, zorionak bi taldeei eta parte hartu dutenei.

AGENDA EGUNEZ EGUN

BESTAK

LESACA

► **Uztailaren 6tik 10era.** Ikus xehetasunak erdialdeko gehigarrian.

AZPILKUETA

► **Uztailaren 6tik 10era.** Ikus xehetasunak 21. orrialdean.

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Ekainaren 23tik uztailaren 14ra**
Patxi Elizetxe margolari elizondoarraren lanen erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Arratsaldeko 7etatik 9etara.

TRESNA ZAHARREN ERAKUSKETA

LEITZA

► **Ekainaren 30ean**
Arratsaldeko 8etan herri kirolari buruzko hitzaldia.

► **Uztailaren 1ean**
Arratsaldeko 8etan Alegiako Txintxarri eta Leitzaoko Asketa abesbatzak elizan. Gauko 11etan txaranga.

► **Uztailaren 2an**
Gorritzarango pesta.

► **Uztailaren 9an**
Diana, musika eskola-ko trikitilari eta akordolarien eskutik. 11,30etan umeentzako eskulan tailerrak. 12etan arpanlariak. 6etatik 8etara, trikitilari eta akordeolariak. Herriko sutegia marixan jarriko da.

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Leche Frita


Osagaiak

- Esne litro bat • 6 arraultze • 150 gr. irina • 300 gr. azukre • Limoi azala • kanela erdia •

Prestatzeko manera

Esnea, limoia eta kanelarekin egosi minutu pare bat irakin arte. Azukrea eta irina ongi nahasi eta arraultzeak bota, eta berriro nahasi masa berdindua lortu arte. Esne egosia erantsi eta berriz nahasi. Irazkin fin ba-

tean pasatu. Pasatu ondotik, lortutakoa egosi, bueltak eman ez itxekitzeko kontuz ibili bi minutuz. Plaka bat olioztatu, bai zola bai bazterrak eta nahastura plaka horretara bota, zentimetro bateko loditasuna eman. Ongi hoztera utzi eta nahastura mahai garbi baten gainean paratu, nabal batekin moztu, irin eta arraultze-



Luismi LAKAR
Sukaldaritza ikaslea
•LEGASA•

an pasatu eta prexistu beltzatu gabe. Paper batean ongi idortu eta bero-beroak serbitu. Oharrak: Egosterakoan minutu pare batez irekin behar du, irin gordinaren zaporea galtzeko.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoa): 5.000 pza.
- Zerri gizona (95-100): 193 pza/kilo
- Zerramak: 120-130 pza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
 - Idixkoak: Pza/kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 550 |
| 1.koa | 520 |
| 2.koa | 500 |

- Urruxak: Pza/kg. Kanal
- | | |
|-------------|-----|
| Extra | 560 |
| 1.koa | 530 |
| 2.koa | 510 |
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
 - Nabarrak: urruxak 20.000 eta idixkoak 32.000 Pza.
 - Mestizoak: urruxak 32.000 eta idixkoak 48.000 Pza.
 - Behi zaharrak:
- | | |
|--|--|
| Behi nabar gizona: 400 Pza./Kg. Kanal. | |
| Behi gorri ona: 460 Pza./Kg. Kanal. | |

DATU ITURRIAK: EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza

- Bertako sagarrondoak 950.
- Udareondoak 950 pza.
- Gereziondoak 1.050 pza.
- Aranondoak 1.050 pza.
- Muxika 870 pza.



❖ BARAZKIAK ❖

- Porruak zientoa 300.
- Piper txorizero zientoa 800.
- Piper morro zientoa 800.
- Piperminak zientoa 600.

ttipi-ttapa
urte oso batez
(24 aldizkari)
Ameriketara
bidaltzeak
8.000 Pta. balio du.


Interesatua egon ezker, deitu **948-631188ra**

**ETXANDI
TXOKO
erretegia**

Bazkari, afari eta
gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91

Etxe berrien eraikuntza (eta II)



Etxegile batzuk, materiale eta lengileetaz arduratzen dira, bertze batzuk materialeaz bakar bakarrik

5.- Eraikitzen hasteko udal-letxean 'Eraikitze lizentzia' eta 'Eraikuntza, instalazio eta obren zerga' ordaindu beharko ditugu. 'Eraikitze lizentzia' lortzeko, proiektuaren hiru kopia, arkitektoaren obra zuzendaritzako orria eta aparejadorearena aurkeztu behar ditugu. Lizentzia honen prezioa udalaren barne-legetan agertzen da. Aurrekontuaren portzentai bat da eta sei hilabetarako epea du. 'Eraikuntza, instalazio eta obren zerga' lizentzia eman eta hilabete bitarteko epean ordaindu beharko dugu, etxebizitzaren prezioaren arabera eta dagokion portzentai %2 eta %4aren bitartekoa izaten da.

6.- Etxegileen kontratazioa bi motatakoa izan daiteke. Etxegile batzuk denetaz arduratzen dira, hau da, bai materialez bai langilez, eta bertze batzuk materialez bakarrik arduratzen dira, langileen kontratazioa etxeko nagusiaren gain gelditzen delarik. Bigarren kasua merkeagoa da baina etxearen nagusiaren lana ez da Nolanahikoa. Etxegileak 'Akta liburuan'

oinarrizten dira bere lana egiteko, bertan arkitektoak eta aparejadoreak azaltzen baitute egin behar dena.

7.- Etxebizitza 'mailegu hipotekario'aren bitartez eraikitzen badugu, kutzak edo bankuak behartuko gaitu arrisku guzitarako aseguru egitera. Beharrezkoa ez izan arren, hobe dugu erantzunkizun zibileko aseguru ateratzea.

8.- Etxebizitza bukatzean 'obraren amaierako ziurtagiria' eta 'obra berriaren aitorpena' ziurtagiriak lortu behar ditugu. Lehenak,

Bizitzera joan baino lehen 'lehen okupazio lizentzia' eskatu behar da Udaletxean

proiektuari zehaztasunez segitu zaiola adierazten du eta bigarrena eskuratzen da, ziurtagiri hori eta dokumentazio guztia aurkeztuz, notario baten bitartez. Beharrezkoa ez bada ere, hobe da jabetza erregistroan izen ematea. Gero Haziendara jo behar dugu, 'obraren amaierako ziurtagiria' eta 'obra berriaren aitorpena', etxebizitzaren planoak, kokapena, kontribuzioaren errezibo eta etxearen argazki bat eramanez. Bizitzera joan baino lehen, ezinbertzekoa da 'lehen okupazio lizentzia' udaletxean eskatzea, argia, gasa, telefonoa... kontratzeko behar baitugu.

MIKEL BEZUNARTEA
IRATXE-KOA

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
- Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratatutako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

AGENDA EGUNEZ EGUN

KONTZERTUAK

DONEZTEBE

► **Ekainaren 29an** ortzeguna, Ekaitza tabernan, Sustraiak taldea.

► **Ekainaren 30ean** ortzirala, Ekaitza tabernan, Los Morochos taldea.

► **Uztailaren 2an** igandea, Ekaitza tabernan, Txakun taldea.

IKASTAROAK

UEU - BAIONA

► **Uztailaren 3tik 7ra.** Udako Euskal Unibertsitateak 23garren edizioa.

BERTIZ

► **Uztailaren 3 eta 4an** Bertizko Partzuergo Turistikoren asoziatuentzat lan kontratazioei buruzko ikastaroa.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Ekainaren 26tik uztailaren 2ra** Lesaka, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Uztailaren 3tik 9ra** Bera, NARBATE, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

► **Uztailaren 10etik 16ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

ITUREN. Borda bat alokatzen dut. ☎ 450802.

BERA. Pisu salgai. ☎ 630733.

IRURITA. Bi etxebizitza dituen etxea salgai bere terrenoarekin. ☎ 452180 (Juan Mari, arratseko Beta-tik aitzinera).

LEGASA. Pisu bat alkilatzen da. ☎ 943-614735.

ALFARO (Errioxa). Bi solairuko etxea salgai. Bi terraza, garajea, erretegi estalia, hiru logela, sukaldea eta bainua. Mobleztatua. Prezioa: 5.200.000 pta. ☎ (943)553289 (Alfredo).

DENETARIK

BAZTAN. Borda erosiko nuke. ☎ 306502 (Lurdes).

Baserria erosiko nuke, ez du inporta zein egoeratan, lur eremu ttiki bat baldin bado. ☎ 234830 (Iñigo).

Uztailan eta irailan Donostia edo Irundik Lesakara etortzeko kotxea behar dugun ikasleak gara. Eguerdiko 1,30-2ak aldera. Gastoak banatuko genituzke. ☎ 637873 (Izaskun)-631046 (Jaione).

Kartelak, Buzoiratzeko paperak, Bisita txartelak, Faktura Talonarioak... egi-ten ditugu. Merke eta az-

kar. ☎ 631188.

Lesakan ardotezia salgai edo alokatzeko, arrazoizko prezioan. ☎ 637453.

Lesaka. Belar ona kentzearen alde emanen nuke Tellegi baserrian. Pista ona bertaraino. ☎ 387062.

Neska bat behar da, ikaslea, pisu bat osatzeko Barañain-en. ☎ 630556.

Ormigonera-amasadora ia berria, egoera onean dagoena saldu edo alokatuko nuke. ☎ 393111 (arratsetan).

Baserriko oilaskoak salgai. ☎ 637398 (bazkal orduetan).

AZIENDAK

Bi **ahari** motz salgai. ☎ 450907.

Miga xuri-gorria, bi urtekoa, salgai. Zortzigarren hilabetean dago ernari. ☎ 634034 (Arantza).

Bi eta hiru urteko **ahariak** salgai Goizuetan. ☎ 514179 (arratsaldeko 3etatik 4etara).

Urte beteko asto arra salgai. ☎ 514168 (Goizueta, ilunabarretan).

Gazte tituludunak euskara klaseak emanen lituzke Igantzin. Interesatuak egon daitezkeenak deitu ☎ 637397ra.

Igeltsero ofiziala eskaintzen da lana egiteko. Etxeko lan ttikiak ere egi-ten ditut. ☎ 615124 (gaueko 9etatik aurrera). Esteban-Saldias.

LANA

Irakasle tituluduna eta EGArekin urte osoan Beran eta Lesakan klase partikularrak emateko prest. Euskera, OHO, frantsesa, REM... ☎ 630182-637839 (Klarisa).

Furgoneta salgai, Mercedes Benz, NA-K matrikuladuna. Barrendik oso ongi prestatua (armarioak, frigoa...). 140.000 kilome-

IBILGAILUAK

tro. ☎ 510486.

Peugeot 309 GTI, NA-AM matrikuladuna (93koa) salgai. Gris metalizatua, osagarriekin, irrati-kaseta, transeferentzia egina. ☎ 580862 (arratsetan).

Berako Juan Carlos Garro-ri: Badakigu pintxazoa- rengatik izanen ez balitz buelta irabaziko zenuela. Hoberena zara. Suerte on hurrengo bueltetan, aupa eta segi aurrera. Jotake irabazi arte. Berako Thelma eta Louise.

Erratzuko Ainhoa B.ri: zorionak zure urtebetetzean

(ekainak 7). Oronozko N.D.ren partez. Muxu haundi bat.

Zorionak Narbarteko Begoñati zure 8. urtebetetzean zure familiaren partez, eta oso ondo pasa eza-zu.

AGURRAK

Oronoz-Mugairiko Jai-oneri: Askoi maite dut eta gogoan zaitut. Zuk dakizun mutil bat.

Iruritako Izaskuni: okupatuta egon arren askoi maite zaitut. Oronozko mutila bat.

San Francisco Javier eskolako 7.B gelako Ainhoa Bengoetxea eta Esther Maritorea: arras onak zaudete. Oronoz-Mugairiko bi mutilen partez.

Mixi, Pipi eta **Peturi** esker mile kurtso guztia soportatzeagatik. Tiabuenas! Peluren partez.

Mugairiko K.O. eta J.E.ri arras majak zarete. Pasatu ongi oporrak, bitartean egon lasai ikusiko gara eta. (Katxonda).

7. mailako Maite U. eta Maitane M.: Entzun dugunez klaseko bihurri eta majenak omen zarete. Ezagun batzuen partez.

Elizondoko Puxpulineri zorionak naufragato baten

partetik. Zu gabe irla huts galdubatean naiz, muxuak botiletan itxas hondora berri- noiz naufragatuko amets.

Oronoz-Mugairiko Kar- mele O-ri: engainatu arren nik maite zaitut. Iruritako mutila.

Anizko Fermintxo eta Ainhoari: zorionak zuen 17. urtebetetzean (uztailak 2). Ongi pasa eta oroitu afari bat egin behar dugula. Berroeta eta Anizko lagunen partez.

Elizondoko Miren Launagaraiatzat: zorionak zure urtebetetzeagatik (ekainak 25). Ongi ospatu. Urdazubitik Alizia.



Edozein pisu mugitzen dugu Pabilioiak muntatzen ditugu

BULEGOA:

Sebastian de Erratzu, 7 behea • IRUN
Tfnoa: (943) 61 87 24
Tfno Mugikorra: 908 - 77 54 57

GRUAK:

Estación, z/g • IRUN
Tfno Mugikorra: 908 - 67 85 84



HIRI ARTEKO, ESTATU BARNEKO eta NAZIOARTEKO BIDALKETAK

Paketeak eta dokumentuak bidaltzeko modurik azkarrena

- **GARRAIO URGENTEA:** Estatu guztian goizeko 10ak baino lehen entregatuko dugu.
- **24 ORDUKO ZERBITZUA:** Arratsaldeko 6ak arte entregatuko dugu

ZERBITZU GARANTIZATUA

Martin Urrutia Etorbidea z/g • ORONOZ MUGAIRI
Tfnoa eta Faxa: 592179



EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • APJ 129

INFORMAZIOA: 451518 (DONEZTEBE) • 23 48 30 (IRUÑEA) • 908. 77 76 96 (Mugikorra)
Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

ETXEAK

Sunbilla. Etxea baratzearekin salgai. Berritu beharra. 7.000.000 pta.

Ezkurra. Etxea baratzearekin salgai. Prezioaz solastuko dugu.

Narbarte. Etxe zaharra bere baratzearekin salgai. Berritu beharra. Nekazal etxerako egokia. 7.500.000 Pta

BORDAK

Ituren. 4.000m²ko lur eremua duen borda salgai. 2.000.000 pta.

Ezkurra. Bizitzen jartzeko moduko borda salgai. 1.000 m²ko lur eremua, ura eta argia. Prezioaz solastuko dugu.

Leitza. Borda Leitxalarrea aldean. 4x4 autoa behar da igozteko. Prezioaz solastuko dugu.

Olague. Borda lur eremuarekin salgai. 3.000.000 pta.

PISUAK

Legasa. Lau bizitzako etxe batean 100m² pisua salgai Zola eta leihoak gaztaintzekoak. Mobleztatua. 9.000.000 pta. hagitx negoziagarriak

Elgorriaga. Pisua, bajera eta ganbararekin salgai. Prezioaz solastuko dugu.

Doneztebe. Pisua, sukalde ekipatuarekin eta bajera lortzeko aukerarekin salgai. 8.200.000 pta.

Doneztebe. Luxuzko pisua terrazekin salgai. Beola kafeteg berriaren gainean.

Legasa. 90m² pisua salgai Opoka ostatuaren gainean. Mobleztatua, 40m²ko ganbara ura eta argindarrarekin pisuaren gainean eta 13m²ko garajearekin 9.000.000 pta.

PISUAK

Etxalar. Herriaren erdi-erdian 190 m²ko pisua salgai. 9.000.000 pta.

Sunbilla. Pisua salgai 40m²ko sotoa eta 18 m²ko ganbara. 11.000.000 pta. negoziagarriak

BASERRIAK

Etxalar. Baserria, borda eta 60.000 m²ko lurarekin salgai. Tfnoa, ura eta argindarra.. 33.000.000 pta.

Goizueta. Baserria salgai. Ura, argindarra eta telefonoa. Prezio negoziagarria.

Etxalar. Baserria borda eta lur eremuarekin salgai.

Bera. Luxuzko baserria salgai. Sgargardotegia edo Osasun Etxea egiteko aproposa.

Etxalar. Baserri habitagarria salgai, herritik 10 minututara.

BAJERA KOMERTZIALAK

Lesaka. Pabilioi industrialak saltzeko edo alokatzeko.

Elgorriaga. Komertziorako bajera saldu edo alokatzen da, karreteraren ondoan.

Bera. 850 m²ko pabilioiak, 1.000 m²ko lur eremuarekin salgai.

ALOKAIRUAK

Narbarte. Pisu mobleztatua salgai. 100 m²ko garajea eta 20 m²ko baratzearekin alokatzen da. Prezioaz solastuko gara.

Elgorriaga. Etxe adosatua, mobleztatua, garajea eta jardinarekin alokatzen da. Prezioaz solastuko gara.

Doneztebe. Pisua moblerik gabe alokatzen da. 30.000 pta hilabetean.

MUEBLES AMETS

mobleak orokorrean

BIDASOA karrika 45-60 • Tfnoa: 948-630537 • BERA

Ez galdu denborarik!!



SUKALDEAK

LOGELAK

KOMEDOREAK

GAZTEENDAKOAK

4 erakusketa zure esku

OFERTAK KOLTXOI eta SOMIERRETAN

LESAKA 1.995'ko

SANFERMINAK



UZTAILAK

7

JULIO

IDOIA TELLETXEA - 95

**Lesakako Udalak besta onak opa dizkizue
Lesakar eta bisitari guztiei**

